anboto

Durango Azoka Durangaldeko sortzaileen plaza ere baDA!

Durangoko Azokaren 57. edizioan 250 kultur ekitaldi baino gehiago izango dira, abenduaren 7tik 11ra . Kultur plaza erraldoi horren barruan, Durangaldeko sortzaileen lanak ere egongo dira; diziplina anitzeko lanak, eskualdean kulturgintza bizirik dagoen seinale.

TALAIA

Abenduak 7, eguaztena

10:30 - 14:30 Ikasle Goiza.

Abenduak 8, eguena

10:30 – 11:00 Beste mundu bat nahi genuen. Nafarroako ezker iraultzailea (1970 – 1979). Imanol Satrustegi

11:00 – 11:30 Pilotaren taupadak. Aritz Arrizabalaga eta Asier Martínez de la Pera (BFA)

11:30 – 12:00 Amaiur! Libera State. Asisko Urmeneta eta Xabier Monasterio (Gure Berriak)

12:00 – 12:30 M ama* eme* ume*. Estitxu Fernandez eta Erika Lagoma (Elkar)

13:00 – 14:00 Euskal liburugintza, bilakaera eta oraina. Jakin

14:30 – 15:00 Iparrorratza bildumako bi liburu berri. Txalaparta

15:00 – 15:30 Egungo Euskal Literatura eta Futbola II. Jon Kortazar eta Mari Mari Boillos (EHU-UPV)

15:30 – 16:00 Txokomates: Txokolate zaporezko mate laborategia. Ane Santiago Urkijo eta Lurdes Ulazia Aizpurua.

16:00 – 16:30 TZ Testu Zaharrak argitaletxeko aurtengo liburuak. Maite López las Heras eta Xabier Monasterio

16:30 – 17:00 Euskal Herriko Antzinaroko jainko eta jainkosen izenak. Erromatar garaiko euskal mintzaira teonimiaren argitan (Euskaltzaindia)

17:00 – 17:30 Urratuen Arrastoan. Iratxe Retolaza eta Kepa Sarasola (UEU)

17:30 – 18:30 Kultura eraldatzaileaz gaztetasunetik. KLAK Gazte Ahotsa

19:00 – 20:00 Euskal irudigileon papera XXI. mendean. Euskal Irudigileak

Abenduak 10, zapatua

10:30 – 11:00 Taroka. Errima joko bertsoterikoa

11:00 – 11:30 Xabier Leteren lirika osoa. Lurdes Otaegi eta Alex Gurrutxaga

11:30 – 12:00 Durangaldea oinez ezagutzeko bide bat. Alpino Tabira Mendi Taldea

12:00 – 12:30 Munduari bira eman zion ontzia. Joseba Sarrionandia (Pamiela)

13:00 – 14:00 Euskarazko literaturaren nazioartekotzea. Euskadi Literatura saridunak

14:30 – 15:00 Ni ez naiz Mikel Laboa. Unai Iturriaga, Harkaitz Cano eta Joseba Larretxea (Elkar)

15:00 – 15:30 25 urtez Euskal Nortasunaren Alde eta Eguneroko Euskalduntasunaren Gara(i)pena

15:30 – 16:00 Mendebaldeko euskara zaharra. Ezaugarriak, kronologia eta geografia

16:00 – 16:30 Las Siete Llaves y Zazpi Giltzak. Marisol Andrade

16:30 – 17:00 Hormetan: kartelak Bizkaian. Alex Oviedo eta Kike Infame (BFA)

17:00 – 17:30 Euskal Pedagoga Lokatzetan. Joxe Mari Azurmendi Atik Zra (Hik Hasi)

17:30 – 18:00 Euskal Herriko historia ilustratua IV. Joseba Asiron eta Martin Alzueta “Martintxo” (Txalaparta)

18:00 – 18:30 Ilargiaren Egutegia 2023. Jakoba Errekondo (Argia)

19:00 – 20:00 Idazleak Ikastetxeetan. Nerea Loiola, Asier Serrano eta Patxi Zubizarreta

Abenduak 11, domeka

10:30 – 11:00 Durangoko Azoka geografo japoniar baten ikuspuntutik. Ishii Hisao

11:00 – 11:30 Ilargia eta landareak. Jakoba Errekondo (Argia)

11:30 – 12:00 Isildutako eskuak. Jon Abril (Elkar)

12:00 – 12:30 Lege zaharrean: lanbideak galzorian. Jesus Mari Arruabarrena (BFA)

13:00 – 14:00 Kultura bai, baina ez. Lanartea

14:30 – 15:00 Txalaparta: zentzua eta historia. Argibel Euba eta Elisabete Alberdi (EHU/UPV)

15:00 – 15:30 Amapatxa. Amets bat, bide bat. Ion Braka

15:30 – 16:00 Hazi Hezi aldizkaria. Familientzako haziera eta heziketa tribua (Hik Hasi)

16:00 -16:30 Gorbeiako istorioen bila: gure mendi magikoko hamalau igoera. Javier Sanchez- Baskoetxea

16:30 – 17:00 Emakume digitalak euskal komunitate digitalean. Hamaika Telebista.

17:00 – 17:30 Ekaiak badu garrantzia. Jose Ramon Etxebarria (UEU)

17:30 – 18:00 Sendabelar baratzea. Garbiñe Larrea (Argia)

18:00 – 18:30 Fotokazetaritza. Argazkigintzaren teknika eta kazetaritzaren egitekoa. Maria Gorosarri (UEU)

18:30 -19:00 Harizko Zubiak. Jon Sarasua eta Jose Angel Irigaray (Pamiela)

19:00 – 19:30 EH! Petrel. Julio Villar eta Ibon Gaztañazpi

19:30 – 20:00 Bukatu DA! Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai

"Ohiko dimentsioa" hartuta, Durangoko Azokaren 57. edizioak abenduaren 7an zabalduko ditu ateak

Aurtengo Durangoko Azokan 930 nobedade egongo dira. Abenduaren 7an hasiko da, Ikasle Goizagaz

DURANGO • **ARITZ MALDONADO**

57. Durangoko Azokak abenduaren 7tik 11ra zabalduko ditu ateak. 250 stand egongo dira Landako Gunean, eta 930 nobedade aurkeztuko dituzte bertan: 689 liburu, 141 musika produktu, 46 aldizkari eta bestelako 54 lan. "Urte berezi biren ondoren, euskal kulturaren eztanda ospatu gura dugu. Euskal kultura bor-bor izango dugu edizio honetan. Azken urte bietan testuinguru konplikatua izan arren, azokari eustea lortu dugu denon taupadari eskerrak. Orain euskal kulturaren plazari bizia emateko momentua helduko da, bere gune eta espazio guztietan", azaldu du Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkarteko koordinatzaileak; 250 kultur ekitaldi ere egongo dira. Azokako antolatzaileek eta gune bakoitzeko arduradunek prentsaurrekoa egin zuten egitaraua aurkezteko. Webgunean ikusi daiteke egitaraua osorik: *durangokoazoka.eus*.

250 stand egongo dira Landako Gunean, eta 930 nobedade aurkeztuko dituzte bertan

'DA PRO!' eta 'Zu non, han DA'

Durangoko Azokak aurretik eta ondoren ere izango ditu ekitaldiak. Abenduaren 5ean DA PRO! sortzaileentzako topaketa profesionalak hartuko dituzte San Agustin kulturgunean eta Bizenta Mogel bibliotekan. Musikariek eta familia-ikuskizunen sortzaileek euren proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte.

Bestalde, abenduaren 12tik aurrera, 'Zu non, han DA!' ekimenagaz Azokako nobedadeak Euskal Herri osoko 132 saltokitan egongo dira. Azokak irauten duen egunetan Internet bidezko denda ere egongo da.

Durangoko Azokako arduradunak, azokaren aurkezpenean.

% 100
URA GARA

Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz, inbertituz eta mantenduz.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.eus

“Aurtengo leloa 'Eztanda!' denez, sorkuntzaren eta jaiaren eztanda, Big Bang-aren moduko burrunba, islatu nahi izan dut"

Ruben Ramos diseinatzaileak aurtengo azokako kartela sortu du. Kanpaina garrantzitsuetan parte hartu du: Jazzaldian eta Zinemaldian, esaterako

Ruben Ramos Gonzalez
Diseinatzailea
URNIETA | **1986**

GEREDIAGA ELKARTEA

DISEINUA • JONE GUENETXEA

Ruben Ramos diseinatzaileak sortu du aurtengo Durangoko Azoka iragartzen duen kartela. ‘Eztanda!’ berbatik abiatutako ideiak azokako euskarri guztiak jantziko ditu. Urnietarra Donostiako Aise Studio diseinu estudioaren sortzailea da. Ibilbide luzeko diseinatzaile eta sortzailea da Ramos, eta azken urteetan hainbat kanpainatan lan egin du: Zinemaldian, Jazzaldian, Loreak mendian kanpainan... Aire retroagaz diseinaturiko kartela da eta Durangoko Landako Guneko sarreran prest dago azokari ondoetorria emateko.

Zelan sortu zaizu azokako kartela diseinatzeko aukera?
Dei bat jaso nuen esanez nire lanak ikusi zituztela eta nirekin bildu nahi zutela aurtengo kartela egiteko.

Zelan hartu zenuen proposamen hori?
Ilusioa egin zidan. Azokara txikitatik joaten ginen, ikastolatik. Urteren baten talde batekin stand baten egon nintzen. Ahotsenean ere jo izan dut.

> ***Gogoa dut aplikazio guztietan ikusteko. Landako Guneko sarreran ere kartel erraldoia egongo da***

Behin enkargua onartuta, zelan planteatu zenuen sormen lana?
Hasieran, orain denbora bat egiten nuen estiloa berreskuratzea eskatu zidaten. Ilustrazio estilo hori jada ez dut asko jorratzen. Beraz, estilo hura gaur egun egiten ditudan gauzekin nahasten saiatu nintzen.

Kartel honegaz zein ideia transmititu gura izan duzu?
Aurtengo edizioko leloa 'Eztanda!' denez, sorkuntzaren eta jaiaren eztanda, Big Bang-aren moduko burrunba, islatu nahi izan dut. Kultura plazara eta mu-

> ***Ilusioa irudikatu nahi izan dugu, norberaren imajinazioan dagoen kolorea, kulturak berak sorrarazten dizuna***

sika oholtzara irudikatzen saiatu gara. Batez ere inklusibitatea landu nahi izan dugu. Bi pertsona agertzen dira, ez emakume eta ez gizon, eta biak batzen direnean beste kolore bat sortzen da. Ilusioa irudikatu nahi izan dugu, norberaren imajinazioan dagoen kolore hori, kulturak berak sorrarazten dizuna. Liburu bat irakurtzen duzunean edo musika entzuten duzunean zeure buruan gertatzen den eztanda hori.

Diseinuaren arloan, zertan diharduzu?
Diseinu estudio bat daukat Donostian. Aise deitzen da. Batez ere markak, publizitate kanpainak, webguneak eta horrelako diseinu lanak egiten ditugu.

Ahotsenean jo izan duzula esan duzu. Musika talde batean jotzen duzu?
Bere garaian, Nerabe taldean jotzen nuen eta pandemia aurretik jo genuen Ahotsenean.

Azoka berezia izango da aurtengoa. Kartela alde guztietan ikusiko duzu.
Bai, eta ez da kartela bera bakarrik. Gogoa dut aplikazio guztietan ikusteko. Landako Guneko sarreran ere kartel erraldoia egongo da.

anboto
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko abenduaren 2a
21. urtea - 916. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 12.000 ale

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO · AMOREBIETA - ETXANO · ATXONDO · BERRIZ · DURANGO · ELORRIO · GARAI · IURRETA · IZURTZA · MALLABIA · MANARIA · OTXANDIO · ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Kontua ez da landa eremua ezagutzen dugun ala ez; begirada da aldatu behar duguna”

'Lur gainean, itzal azpian' liburua ahotsenean aurkeztuko du Leire Milikua abadiñarrak abenduaren 9an

Leire Milikua Larramendi
Idazlea
ABADIÑO | **1985**

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Leire Milikua abadiñarrak *Lur gainean, itzal azpian* liburua kaleratu du oraintsu; abenduaren 9an aurkeztuko du Ahotsenean, Josebe Blanco artzainagaz batera. Susa argitaletxeagaz publikatu du liburua, Lisipe bildumaren barruan. Landatartasuna erdigunera ekartzea gura du Milikuak liburuagaz, berbagai bihurtzea.

Liburua landa eremuko emakumeen leiho eta bozgorailu izateko helburuagaz jaio dela diozu.

Lehenengo atalean marko bat sortzen dut, toki bat, datu, aipu eta erreferentziekin; irakurlea hor kokatu gura dut, leiho horrek normalean begiratzen ez diogun leku batera ematen duelako, landa eremura. Bigarren atalean, bozgorailu funtzioa betetzen du. Urteetako ikerketa lanaren bidean topaturiko ahots eta testigantzen bozgorailu izateko. Garrantzitsua da hori esatea, ahots horiek existitzen direlako; nik ez diet ahotsa ematen, badutelako ahotsa. Ez nator ezer berria gehitzera, dagoen horri lekua ematera baino.

Eta zer diote ahots horiek?

Emakumeok sistema honetan ditugun egiturazko oztopoei geruza bi gehitu behar dizkiete emakume hauek: landatarra izatea, sistema urbanozentrista batean bizi garelako; eta nekazari izatea, sistema kapitalista honetan elikagaiak sortzeak duen balioagaitik. Sektoreak egiturazko funtzio oso garrantzitsua du, eta ez dugu baloratzen. Egia da leku batzuetan aldaketak gertatzen dabiltzala, baina irudi publikoa gizonena da, emakumeena itzaleko lana den bitartean. Eta emakumeei parte hartze guneak eskaintzerakoan, ez dira euren neurrikoak. Lan banaketa ez da justua, eta eurentzat prest ez dauden gune batzuetan parte hartzeko eskatzen diegu, gainera.

Nekatuta ikusi dituzu, beraz.

Talka bat dago emakumeei marketingean ematen zaien tokiagaz eta gero euren bizitzan eragin zuzena duten politiken diseinuaren eta aplikazioaren artean. Alde batetik, errekonozitu egin gura ditugu, eta beste alde batetik ito egiten ditugu. Eta askok ez dute joko horretan gehiago jokatu gura. Liburuaren hirugarren atalean hausnarketarako zati bat planteatzen da. Kolektibo honen bizirautea eta parte hartzea ezin da euren gain egon bakarrik. Gai potoloegia delako, alde batetik; eta injustua delako, bestetik.

Ezagutzen dugu landa eremua? Eta landa eremuko emakumeak?

Landa eremura begiratu bai, baina ez dugu landa eremua ikusten, eta gutxiago ulertzen. Herriguneetako klabeetatik ikusten dugu dena, oso klabe urbanoa dugu. Bizi garen sistema ere oso urbanozentrista da eta herriguneetako guztia beste guneetara zabaltzen du. Inertziaz uste ditugun gauza horiek desmuntatzeko tresna da liburuaren helburuetariko bat, gonbidapen bat berrikuspenera, benetan balio duen hori berrikustera. Kontua ez da

> ***Guztiontzako liburua dela esango nuke, landa eremukoa izan zein ez***

landa eremua ezagutzen dugun ala ez; begirada da aldatu behar duguna.

Gehiengoa herriguneetan bizi gara. Landa eremua ez den hori, hirigune eta herriguneak, lurraldearen %12 dira, eta gizartearen %89 herriguneetan bizi gara. Argazki hori klabea da testuingurua ulertzeko.

Nori zuzenduta dago liburua, nork aldatu beharko luke begirada?

Guztiontzako liburua dela esango nuke, landa eremukoa izan zein ez. Niri, bereziki, herrigune edo hiriguneetan bizi direnek irakurtzea gustatuko litzaidake, begirada aldatzeko. Niri begirada hori aldatzen lagundu didaten gakoetariko batzuk azaltzen ditut.

Josebe Blancok idatzi du hitzaurrea, eta Azokako aurkezpena ere beragaz egingo duzu

Pikunietan [baserria] ardiekin, eta ez ardiez berak esaten duen lez, lan egiten duen emakumea da. Ikerketa lan batean ezagutu nuen, eta iruditzen zait harago ikustego gaitasuna duen emakume berezia dela. Konexio bat egon zen egin nion lehenengo elkarrizketatik. Editorialetik hitzaurrerako norbait topatzea eskatu zidatenean, hasieran beste batzuk etorri zitzaizkidan burura, ikerketa mundukoak, baina ez nengoen konforme. Josebegaz gogoratu nintzen gero. Lan karga oso handiarekin topatu nuen, baina beti eskertuko diot denbora hartu izana liburua irakurtzeko eta hain hitzaurre ederra idazteko. Niretzat opari bat da, baita aurkezpena beragaz egitea ere. Liburua gauza polit piloa ekartzen dabil.

“Ikutzeko, mugitzeko, kantatzeko, apurtzeko eta zikintzeko poemak dira 'Poltsikorako poemak'”

Amaia Egidazu Arrube idazle eta ilustrazaileak (Durango, 1981) eta Saroa Bikandi López literatur bitartekariak (Durango, 1978) 'Poltsikorako poemak' liburuxka sorta kaleratu dute. Durangaldeko argitalpenen standean eskuratu daiteke

HAUR LITERATURA • EKAITZ HERRERA

"Jolasteko egindako lana" da Bikandirena eta Egidazurena, autoedizio bidez sortu, idatzi eta ilustraturiko lana. Eskuekin hartu, tolestu, markatu, zikindu, apurtu eta edonora eramateko poemak direla diote. Eurek argitalpena sortzerakoan beste gozarazi gura dituzte umeak.

***Poltsikorako poemak* sortu dituzue. Hau da, poemak edonora eramateko moduko argitalpena da?**

Saroa Bikandi: Bai, horixe da kontzeptua. Erabiltzeko, ikutzeko, mugitzeko, abesteko, apurtzeko poemak dira. Hau ez da liburu bat. Liburu bat zaindu egiten dugu normalean, baina hau ez, honek apurtuta amaitzea du helburu. Zikintzeko, edonora eramateko, gurasoen poltsa barruan eramateko liburuxkak dira.

Horrelako argitalpen formatuak sortzeko beharrizana ikusi duzue? Euskarri berriak sortzekoa?

Amaia Egidazu: Ikusi dugu umeengan, umeen zein helduen arteko hartu-emanetan, oso funtsezkoak direla berbak, jolasa, errimak, erritmoa. Askotan, poema liburuak hartzen ditugunean, ez dakigu zelan kontatu. Guk poematxo hauek irudiz jantzi eta poema bera jolas bihurtu ditugu. Zelanbait, beste irakurketa bat ahalbidetzen du, ez bakarrik ahoz, baita irudi bidez ere.

Saroa Bikandi: Formatuak berak proposatzen du irakurtzeko edo jolasteko erritmoa.

Sei liburuxka osatu dituzue. Zein gai landu dituzue eta zelakoa izan da sortze prozesua?

Saroa Bikandi: Ez dago gairik (barrez).

Amaia Egidazu: Liburuxketariko bat, *Lasterketa* deiturikoa, Berbaro elkarteak antolaturiko ilustrazio tailer batean hasi nuen. Irati Egurenek eman zuen tailerra. R hizki asko duen istoriotxoa da. Ideia lez asko gustatu zitzaidan. Kontua da Saroak eta biok lehendik elkar ezagutzen genuela. Hemen hasi zen gure elkarlana, Bizenta Mogel bibliotekan, zapatu goiz batean kasualitatez bat egin genuenean. Elkarri gauzak komentatzen hasi eta nire ideiaren berri eman nion Saroari. Konturatu ginen nik buruan neukan ideiak eta Saroak buruan zeukan beste ideia batek, 'Poltsikorako poemak' proiektuak hain zuzen ere, bat egiten zutela, guztiz. Zergaitik ez dugu elkarregaz egiten?, esan genuen. Eta halantxik hasi ginen.

Saroa Bikandi: Abiapuntua eta gaiak oso libreak izan dira. Gustuko genituen poema batzuk euskaratu ditugu, beste batzuk sortu.

Amaia Egidazu: Gero badago poema bat niretzat bereziki kutuna eta berezia dena: 'Goizaldean'. Nik ahozkotasunetik jasoriko bertsoa da. Aittitte Gregoriok behin eta berriro abesten zuen bertsoa etxeko sukaldean. Kariño berezia diot eta omenalditxo bat egin gura nion aititari, bertso honek beste belaunaldiengan ere iraun dezan.

Zein adin tarteri begirako poemak dira?

Saroa Bikandi: Urte bitik aurrera erabili daitezkeela esango nuke. Dena dela, adina ipintzea oso gatxa da, poemak oso era desberdinean erabili daitezkeelako, bitartekaritza desberdinetan.

Amaia Egidazu: Adin bakoitzak zerbait desberdina jasoko du. Batean errimari, erritmoari edo kantuari erreparatuko diote. Beste batean irudien interpretazioari. Adinean gora doanak beharbada zerbait deskubrituko du urte bikoak deskubrituko ez duena. Baina urte bikoak R hizkiaren soinua, bibrazioa, jasoko ditu argitalpenetako batean.

> ***Abiapuntua eta gaiak oso libreak izan dira. Gustuko genituen poema batzuk euskaratu ditugu, beste batzuk sortu***

Ikusten da poemak lantzerakoan zuek biok ere primeran pasatu duzuela.

Saroa Bikandi: Bai, bai. Barre mordoa egin dugu.

Amaia Egidazu: Egia da. Asko dibertitu gara. Berez gu ez gara ilustratzaileak, baina ildo bati jarraitu diogu, estetika bati. Ilustrazioetariko batzuk Saroak egin ditu. Beste batzuk nik. Collage teknika erabili dugu eta piloa jolastu gara.

Non eskuratu daiteke 'Poltsikorako poemak'?

Saroa Bikandi: Durangoko Azokan (Artekale 25-26) eta Durangaldeko dendetan ipiniko dugu salgai; guk eskaintzen ditugun saioetan ere bai.

Amaia Egidazu: 200 aletxo aterako ditugu. Ondo saltzen bada gehiago aterako ditugu; bestela, poltsikoan gordeko ditugu.


www.gualbiasesores.com
Bezeroa, bere enpresako kudeaketa eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia
Gualbi
asesores
Aholkularitza fiskala
Kontabilitate-aholkularitza
Merkataritza eta finantza-aholkularitza
Lan-aholkularitza
Kontu-auditoretza
Aholkularitza juridikoa
Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.:946 818 636 - Faxa: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

“Kariñoz egindako lana da '1, 2, TABI' , eta haurtzarora bueltatzeko aukera eman dit"

Usue Egia ilustratzaile durangarrak Tabirako Saskibaloi Taldea klubaren historia batzen duen komikia kaleratu du. Umeei klubaren historia transmititzea izan dute helburu. Durangoko Azokan egongo da salgai, Gerediaga elkartearen standean

Usue Egia Fernandez de Retana
Ilustratzailea
DURANGO | **1992**

KOMIKIA • AITZIBER BASAURI

Tabirako Saskibaloi Taldea klubak Usue Egia ilustratzaile durangarraren *1, 2, TABI* komikiaren 1.000 ale kaleratu ditu eta komikia Durangoko Azokan eskuragarri egongo da, Gerediagaren standean. Egia oso pozik geratu da emaitzagaz. *Ura leporaino* nobela grafikoa ere argitaratu du aurten.

Zelakoa izan da komikiaren sormen prozesua?

Lehenengo bilerak urtarrilean izan genituen. Tabirakotik proposaturiko zenbait ideia lotu eta garatzen hasi ginen. Umeei klubaren historia, balioak, Tabirakoren oinarriak... transmititzea izan da taldeko zuzendaritzaren helburua. Eta nabarmentzea Durangoko eskola guztiak direla Tabirakoren parte. Bada, kronologikoki egituratutako istorioa planteatu nuen, 12 orrialdetan garatua. Laburra, umeek ulertzeko erraza eta koloretsua. Hori zehaztuta, dokumentazioagaz hasi nintzen.

Zelan egituratu zenuen lana?

Klubeko liburu eta aldizkarietatik datarik eta gertaerarik garrantzitsuenak jaso ditut, Tabirakoren izaeraren parte izan zitezkeen jazoerarik esanguratsuenak. Igual, dena irakurtzea eta garrantzitsuena identifikatzea egin zait gatxena. Dena kronologikoki ordenatzea erabaki nuen, eta komikiaren erdian merkatu plaza ipintzea. Tabirakorentzat, eta durangarrentzat ere bai, oso esanguratsua den espazio hori islatu gura nuen. Klubaren sorrera eta garrantzitsuak izan diren pertsonak agertzen dira komikian; Juanjo Moreno, adibidez. Kronologia ildo hori onartuta, zirriborroak egiten hasi nintzen. Umeei zuzenduriko komikia izan behar zuela kontuan hartuta, kontakizunak sinplea izan behar zuela ikusi nuen, erraz irakurtzekoa, eta irudiek indar handia hartu behar zutela.

> ***Bisuala izatea gura nuen, eta Tabirakorentzat garrantzitsuak izan diren espazioak erakustea***

Hori izan duzu helburu?

Produktu bisuala izatea gura nuen, eta Tabirakorentzat garrantzitsuak izan diren espazioak erakustea. Neuk ere jokatu du saskibaloian, eta, beraz, modu pertsonalean hartu dut lan hau. Kariñoz egindako lana da, haurtzarora bueltatzeko aukera eman didana.

Enkargu berezia izan da, beraz.

Bai. Neuretzat ere oso garrantzitsua izan zen Tabirako. Ni neu ere historia horren parte izan naizela ikustea polita izan da. Motibatuta eta ilusioagaz hartu nuen enkargua. Lan bitxia izan da, zerotik hasi eta apurka-apurka zorrozten joan naizena. Asko gustatu zait.

Klubeko bazkideak ere elkarrizketatu dituzu.

Tabirakoko lehenengo jokalariak izan zirenekin batu nintzen. Taldearen historia bera baino gehiago, euren pasadizo, bizipen eta oroitzapenak batzeko aukera izan nuen. Asko gustatzen zait garai bateko kontakizun horiek entzutea. Adibidez, zelan bidaiatzen zuten Renault Dauphine hori batean, batera eta bestera; merkatu plazan zelako giroa sortzen zen jokatzen zuten bakoitzean. Askari handiak, aldageletako giroa... hori guzti hori oso garrantzitsua zen talde izaera eta talde sentimendu hori lortzeko. Halako xehetasun txiki eta bitxiak islatzen ahalegindu naiz.

Ahorik aho iraun duen transmisioa galdu ez dadin ekin zion proiektu honi Tabirakok. Gazteengana heltzeko formaturik egokiena da komikia?

Ez dakit esaten; hor daude sare sozialak, indar handiagaz. Baina lan bisualak, ikutu daitezkeen lanak, sortzen jarraitu behar dugula uste dut. Liburuak eta komikiak euskarri egokiak dira historia transmititzeko.

***Ura leporaino*, pandemiaren itxialdiaren kontestuan sorturiko nobela grafikoa ere kaleratu duzu, azaroan. Mugarik barik eta barrutik sorturiko lehenengo liburua.**

Bai, eta ez da azkena izango. Hausnartzeko, sortzeko, komunikatzeko bide bat topatu dudala uste dut, mugarik barik. *Ura leporaino* nobelak ez du kolorerik, marrazki eta testu asko dago. Eta ez du binetarik. Binetak mugatu egiten nau, gauza gehiago kontatzera behartzen nau. *1, 2, TABI* komikirako beharrezkoak nituen binetak. Informazioa sailkatzea, egituratzea, behar nuen. Oso lan desberdinak dira biak. Oso eroso sentitu naiz bietan.

Saguganbaran marrazketa tailerra emango duzu, hilaren 7an. Zein ekarpen egiten ditu marrazketak?

Marrazketa lengoaia bat da eta asko transmititu daiteke. Sormena garatzeko tresna bat da umeentzat, eta umeak sormena lantzeko makinak dira. Marrazketa landu eta entrenatu egin behar da.

Athletic Club Vs CA Osasuna

Athleticen eta Osasunaren arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Anbotokideen artean San Mames VIP Areako palkorako sarrera bikoitz bat zozkatuko du Anbotok. Egin zaitez Anbotokide eta zatoz esperientzia zoragarri hau bizitzera.

Zozketan parte hartzeko azken eguna: abenduaren 21a.

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan! >

anboto kide

Leire Vargas durangarra, eskumatik hasita lehenengoa, azaroko aurkezpenean.

Liberoamerikak zortzi emakumeren ahotsak batu ditu 'Barrenetik zulatzen zaitut' liburuan; tartean, Leire Vargas durangarrarena

Lau itzultzaile euskal herritarrek beste horrenbeste idazle latinoamerikarren poemak itzuli dituzte; 'Izotzetan islatua' bildumaren ondoren, Liberoamerikaren bigarren erreferentzia da

POESIA • **ARITZ MALDONADO**

Liberoamerika argitaletxearen helburuetariko bat idazle gazteen lanak argitaratzea da. *Izotzetan islatuak* bilduman, 24 idazle euskaldunen testuak batu eta publikatu zituzten. Orain, euren bigarren erreferentzia argitaratu dute: *Barrenetik zulatzen zaitut*. Bertan, zortzi emakumeren ahotsak batu dituzte, lau poeta eta lau itzultzailerenak; tartean, Leire Vargas durangarrarena. Bikoteka banatu dituzte liburuaren atalak; horrela, itzultzaile bakoitzak idazle bategaz lan egin du. "Bi hizkuntza diruditen hamaika lengoaia desberdin darabiltzate. Elkarrizketa ikusezin baina ukigarri bat sortu nahi du liburuak, jatorrizkoaren eta itzulpenaren artean, eta errealitate eta hizkuntza desberdinak bizi dituzten zortzi emakume batu ditugu horretarako", azaldu dute argitaletxetik. Leire Vargasek, Sarai Roblesek, Jone Makazagak eta Miren Irizarrek egin dituzte itzultzaile lanak, eta Yanina Giglio, Sara Montaño Escobar, Denisse Griffit eta Ingrad Bringas idazleen lanak itzuli dituzte. Ane Zubeldiak eta Iosune de Goñik egin dituzte editore lanak.

Leire Vargas, Sarai Robles, Jone Makazaga eta Miren Irizar izan dira itzultzaileak

Vargasek Yanina Giglioren poemak itzuli ditu. Ez da ohikoa jatorrizko piezak idatzi dituen idazleagaz lan egitea, eta Gigliogaz lan egin ahal izatea eskertu du. "Argitaletxeak aukera eman digu idazleagaz kontaktuan ipintzeko, eta hori ez da normalena. Nik aukeraturiko liburutik berarentzat zeintzuk ziren ezinbestekoak galdetzea garrantzitsua izan da niretzat", azaldu du durangarrak. Horrez gainera, Yanina Giglioren lana ezagutzeko aukera eman dio proiektu honek. "Ez nituen ez bera ez bere lana ezagutzen, baina proiektu honi eskerrak horretarako aukera izan dut", esan du. Liberoamerikak lan egiteko bestelako modu bat ere eskaintzen du; izan ere, literatura "aniztasunean oinarrituriko elkarrizketa edo sarea" izan daitekeela defendatzen dute. "Prozesua polita izan da. Argitaletxea txikia izateak dena etxekoago egiten du. Lau itzultzaileetariko hiru ez gara profesionalak, eta horrek zelanbaiteko askatasuna ematen du; gainera, poesian sormena ere behar da itzultzeko, eta poesia itzultzeko lehenengo kontaktu hau ederra izan da", azaldu du Vargasek. Giglio argentinarra da eta *La do te* eta *Corva* poema liburuak kaleratu ditu, besteak beste. Leire Vargasek *Dena ametsa den irudipena* poema liburua kaleratu zuen iaz, Elkar argitaletxearen eskutik.

Vargas idazle durangarrak Yanina Giglio idazle argentinarraren poemak itzuli ditu

Liberoamerika argitaletxeak publikatu duen bigarren lana da 'Barrenetik zulatzen zaitut'

Estiloari dagokionez, poesian estilo desberdinak jorratzen direla azaldu du egileak: "Nahiko anitzak dira eta horrek aukera ematen du idazle desberdinak ezagutzeko, norberaren gustuaren arabera ere bai". Yanina Giglioren poemek iraganari buruz hitz egiten dute, Sara Montañorenek laburtasuna dute ardatz, Denise Griffithek begirada nostalgikoa erakusten dute eta Ingrig Bringasenek etxearen eta gorputzaren arteko loturaz dihardute.

2019tik Euskal Herrian

Liberoamerika argitaletxeak "Iberiar penintsulako eta Latinoamerikako" idazle gazteen lanak kaleratzen ditu, eta 2019an hasi zen lanean Euskal Herrian; 2017an aldizkari digital modura hasi zen. 2020an *Izotzetan islatuak* idazle gazteen bilduma argitaratu zuen. Literatura lan gaztea argitaratzeaz gainera, hainbat herrialde, kultura eta hizkuntzaren artean zubi lana egitea du helburu.

IRUDIENEA

Abenduak 7, eguaztena

17:00 - 20:00 DemaS.A. Sortzaile amateurren dema

Abenduak 8, eguena

11:00 - 12:00 Loa eta Laia. Talde lana

12:00 - 12:30 Aire! Gentzane Martínez de Osaba

12:30 - 15:00 Bost Teilatu. Talde lana

17:00 - 18:00 Erro bi. Nagore Muriel Letamendi

17:00 - 18:00 Deserri. Imanol G. Gurrutxaga

17:00 - 18:00 Ezohikoak. Alejandra Bueno

18:00 - 19:00 Iretargi. Talde lana

18:00 - 19:00 Sutan. Naia Arantzamendi

18:00 - 19:00 Polita. Eneko Muruzabal Elezcano

19:00 - 20:00 Kimuak film laburra. Hemen bizi da maitasuna (Enara García eta Ainhoa Olaso) **Irrits** (Maider Oleaga) Lanbroa **(Aitzol** Saratxaga)

Abenduak 9, barikua

11:00 - 12:00 Artxipielagoa II Podcasta. Euskadi Irratia

12:00 - 12:30 Helmotz, bi hiri bi organo. Aitor Alberdi Garralda

12:30 - 13:30 Geruzak. Jakin Fundazioa eta Elkar argitaletxea

13:30 - 15:00 Zertako! Talde lana

15:00 - 17:30 Space Jam. Zineuskadi

17:30 - 18:30 Loreak Belaunetan, kulturaren zazpi ahots gazte. Lanartean - Amagoia Gurrutxaga Uranga

18:30 - 19:30 Mari, ixilik nahi gaituztenean. Talde lana

19:30 - 20:30 Itxaso telesaila. EITB

Abenduak 10, zapatua

11:00 - 12:00 Bi arnas. Jon Mikel Hernández

12:30 - 14:30 Irati. Paul Urkijo

14:30 - 15:00 Tears of Bukhara. Markel Goikoetxea Markaida

15:00 - 16:30 Trash. Familientzat zinema euskaraz

16:30 - 18:30 Karpeta Urdinak. Ander Iriarte

18:30 - 19:00 Noizko basoa. Mikele Landa Eiguren

19:00 - 20:00 Pelikula baten bila. Gariza Films

20:00 - 21:00 Latsarriak. Estibaliz Maguregi

Abenduak 11, domeka

11:00 - 12:30 Azken dantza maisua. Mikel Alvarez Sarriegi

12:30 - 13:30 Intsumisioa Bergaran, desobedientziarako bide bat. Aitor Alberdi Garralda

13:30 - 14:30 Itsasoak pizten gaitu. Beñat Gereka

16:00 - 17:30 Gesto. Xuban Intxausti

17:30 - 18:30 Ilunetik Argira. Markel Onaindia Txabarri

Lara Izagirre zuzendari zornotzarrak bere proiektu berriaren sormen prozesua azalduko du Irudienean

Pelikula baten bila filma ezohiko bideari jarraituta sortzen dabiltza Gariza Films ekoiztetxean, Izagirre gidari dutela

IRUDIENEA • J.G.

Lara Izagirrek *Pelikula baten bila* proiektuaren sormen prozesua azalduko du Irudienean, abenduaren 10ean, 19:00etatik 20:00etara. *Pelikula baten bila* zuzendari zornotzarraren proiektua da. Filmaren sormen prozesuak fase ugari izan ditu: tailerra, topaketak, grabazioa, muntaketa… Durangoko Azokan prozesuari buruzko irudi batzuk erakutsiko dituztela iragarri dute. Ikus-entzuleen feedback-a jaso gura dute proiektua garatzen jarraitzeko. Gariza Films ekoiztetxeak azaldu duenez, ezohiko bideari jarraitu diote filma sortzeko. Sorkuntza tailerra egin zuten eta, bertan, parte hartuko zuten zazpi emakumezko aktoreen bila hasi ziren. Martxoaren 28tik apirilaren 1era bitartean egin zuten hautaketa, Bilbon. Pelikula baterako sormen taldea aukeratzea zen asmoa. Proiektuaren prozesuaren berri emango du Lara Izagirrek Durangon.

Bestalde, Paul Urkiijoren *Irati* filma ere aurkeztuko dute Azokan. Oraindino zinemetan estreinatu ez den arren, hainbat jaialditan aurkeztu dute dagoeneko. Urkijo zuzendariagaz batera filmeko protagonistak diren Eneko Sagardoy aktore durangarra eta Edurne Azkarate izango dira Zugaza Zineman, Irudienean, abenduaren 10ean, 12:30ean.

Kimuak film laburrak

Kimuak film laburren barruan, Ainhoa Olaso durangarrak eta Enara Garciak zuzenduriko *Hemen bizi da maitasuna* film laburra proiektatuko dute. Maider Oleagaren *Irrits* eta Aitzol Saratxagaren *Lanbroa* ere ikusgai izango dira, abenduaren 8an, 19:00etan.

Goiuria ikastola

Markel Onaindiak zuzenduriko *Ilunetik argitara* dokumentala proiektatuko dute abenduaren 11n, 17:30ean. Ikus-entzunezkoan Goiuria ikastolaren historia azaltzen dute.

Lara Izagirre.

“Sinesmenek eta pertsonaia mitikoek jakin-mina piztu didate betidanik”

Xabier Olaso idazle otxandiarrak Ibaizabal argitaletxeagaz kaleratu du ‘Galtzagorriak dabiltza etxean’ liburua

Xabier Olaso Bengoa
Idazlea
OTXANDIO | **1964**

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Xabier Olaso idazle otxandiarrak beste urte oparo bat izan du aurten. 'Galtzagorriak dabiltza etxean' eta 'Ilargian kulunkantari' bildumako ale berri bi kaleratu ditu.

'Galtzagorriak dabiltza etxean'. Zeri buruzkoa da?

Izenburuak berak adierazten duenez, galtzagorri batzuk dira protagonista nagusiak, eta etxe barruan gertatzen dira pasadizo guztiak. Hona hemen, laburrean esanda, kontakizuna zertan den: ordu txikitan ipuin bat idazten zebilela, lo seko geratu zen Xabier. Ahots batzuek iratzarri zuten bat-batean. Begiak zabaldu, eta galtzagorri batzuk ikusi zituen ingurumarian. Lau ziren guztira, Katixa, Otili, Zermin eta Addi, zein baino zein xelebreagoa. Lagun prestuak ere baziren eta buru-belarri lagundu zioten Xabierri bere idazle eginkizunean.

Liburua Ibaizabal argitaletxeak kaleratu du, Matxinsalto bilduma eraberrituan.

Mitologia zalea zara?

Naturaz gaindiko mundu ezkutu hori oso interesgarria da. Sinesmenek, pertsonaia mitikoek, elezaharrek eta kontu horiek guztiek jakin-mina piztu izan didate betidanik. Galtzagorriak bereziki interesgarriak zaizkit euren ezaugarri bitxiengaitik: txiki-txikiak dira, gizakiei lanik harrigarrienetan laguntzen diete, orraztokian ezkutatzen dira... Izaki maitagarri horiek haurren irudimena pizteko erabili ditut liburu honetan. Baina liburuko lau galtzagorriak gaurko garaietara ekarriak dira; horietariko bat, esaterako, punkia da, eta beste bat hitz eta pitz ibiltzen da sakelako telefonoaz. Ipurterre eta bihurri samarrak dira denak.

Hainbat balio sustatzen du liburuak. Zeintzuk?

Kontakizunaren luze-zabalean umorea gailentzen da, galtzagorrien joan-etorriek joko handia ematen dute-eta horretarako. Beste balio askoren zantzuak ere badira, baina adiskidetasuna nabarmenduko nuke denen artean.

Zelako garrantzia du umeekin irakurzaletasuna lantzeak?

Garrantzi handia, zalantzarik barik. Irakurtzeak ekarpen handiak egiten dizkio umeari; bere ezagutza handitzeko eta mundua hobeto ulertzeko balioko dio. Gainera, liburuak irakurrita bere trebetasunak garatuko ditu eta sarri askotan emozionatzeko aukera izango du. Irakurtzea kontaktua da, eta oroitzea, eta irudikatzea, eta beste pertsona batzuen azalean ipintzea... Baina, batez ere, gozatzea da, eta ondo pasatzea.

> ***Umorea gailentzen da, galtzagorrien joan-etorriek joko handia ematen dute-eta horretarako***

Manu Ortegak egin ditu liburuko ilustrazioak. Zelan lanean beragaz? Ezagutzen zenuen aurretik?

Entzunda nuen bere izena, baina ez nuen ezagutzen. Bartzelonan bizi arren, haur eta gazte literaturako beste liburu askotarako egin ditu ilustrazioak, eta esperientzia handikoa da. Ilustratzaile handia da eta niretzat pozgarria izan zen liburuaren jantzia bere esku jartzea. Testutik abiatuta, irudi eder eta koloretsuak sortu ditu. Honako eta halako ñabardura asko zegoen testuan eta ez zuen lan erraza, baina ederki asmatu duela esango nuke. Idazlearentzat betiere sorpresa handia izaten da norberaren lana irudien jantziaz ikustea. Nik, behintzat, miresten dut ilustratzaileen lana.

> ***Idazlearentzat betiere sorpresa handia izaten da norberaren lana irudien jantziaz ikustea***

Bestalde, 'Ilargian kulunkantari' bildumako beste ale bi kaleratu dituzu.

Bai, halaxe da, eta, ohikoa denez, Pamiela argitaletxearen eskutik etorri dira. *Haurtxoa* izena du batak, eta *Txoriak kantari* besteak. 'Ilargian kulunkantari' saileko ale bakoitza ariketa poetiko bat da, begia hezteko eta belarria gozatzeko. Errima eta erritmoa erantsita dituzte. Azken liburu bi hauek ere besteen orpotik etorri dira, eta 14 izenburuk osatzen dute bilduma dagoeneko.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Bai, normalean beti izaten dut zeozer buruan egosten. Hurrengoan, han-hemenka ditudan hainbat ipuini ipini gura nieke arreta; horiek ordenatu, berridatzi, zuzendu... Baina, batez ere, idazten dudan gauza guztiekin gozatzea da nire helburua.

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2023

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite Abadiñoko estankoa
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria prentsa denda Hitz Liburudenda
ELORRIO	Tximeleta gozoki denda
GARAI	Herriko taberna
IURRETA	Iurreta kopistegia
IZURTZA	Herriko taberna
MAÑARIA	Herriko taberna Talka
MALLABIA	Herriko taberna
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia prentsa denda
ZORNOTZA	Ayerdi prentsa denda

Anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak

Aristides Hernández Ares eta Joseba Sarrionandia Donostian, maiatzean egindako aurkezpenean. **PAMIELA ARGITALETXEA**

“Liburua historiari buruzko eta bizi garen gizartearen oinarriei buruzko elkarrizketa da”

Sarrionandiak eta Aresek elkarlanean argitaratu dute 'Munduari bira eman zion ontzia' liburua

LITERATURA • JOSEBA DERTEANO

Elkanoren mundu bira abiapuntu hartuta, eta amama-iloben arteko solasaldi baten bitartez, betiko kontakizunen atzeko 'bainak' azaleratu eta gaur egungo gizarteko gai askoren gaineko gogoeta proposatu du Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak 'Munduari bira eman zion ontzia' liburuan. Ilustrazioak Aristides Hernández marrazkilari kubatarrenak dira. Maiatzean aurkeztu zuten liburua eta Durangoko Azokan eskuragarri egongo da, Pamiela argitaletxearen standean. Joseba Sarrionandiak erantzun die galderei.

Zerk animatu zintuen saiakera hau idaztera?

Memoria eskaseko gizartean bizi gara. Historia irabazleen baliabide bihurtzen da eta edozein gertaera errelato manipulatu batera erreduzitzen da.

Bidaia hori oso oker kontatu da eta errebisatu beharrekoa da. Niri Enriquilloren edo Juan Zubiletaren ikuspegiak ere interesatzen zaizkit.

Ikerketa historikoa egin gura izan duzu?

Ikerketa historikoa ez, irakurketa historikoa egin dudala uste dut. Bidaiaren sasoiko kroniketan oinarritu naiz testu literario bat asmatzeko, gaur egungo amamaren eta ilobaren arteko elkarrizketa hori.

Ikerketa historikoen aldetik, kasualitatez aurten oso liburu interesgarria argitaratu berri dute: Enrique Santamariaren *La vuelta de Elkano, el molesto triunfo de la gente corriente*. Gertaera historikoak benetan ezagutu gura dituenak material ederra aurkituko du hor.

Orain 500 urteko historia zati hari heltzeko, amona eta iloba baten arteko dialogoa darabilzu. Zergaitik?

Errelato historikoak partzialak izaten dira, ikuspegi bakarrekoak, gauza batzuk kontatzen dira eta beste batzuk ez. Hemen, amamak errelato bat egiten du, bere autoritatetik, eta neskatoak 'bainak' ipintzen dizkio bere inozentziatik edo bere ironiatik. Hainbat gai kuestionatzen dira horrela, baina oso fuerteak izan daitezke.

Zein da liburu honegaz aditzera eman edo azaleratu gura duzuena?

Liburua historiari buruzko eta bizi garen gizartearen oinarriei buruzko elkarrizketa da, eta gure gizartearen oinarriak azaltzen dira: momentu batean Jainkoaren ideiaz berba egiten da, beste batean monarkiaz, lantzean behin lurraren propietateaz, hainbat bider biolentziaz, askotan diruaz, behin eta berriro moralaz…

Elkanoren bidaia gertaera heroikoa barik naufragio bat izan zela diozu, 390 lagun itsasoratu zirela eta 21 baino ez zirela bueltatu. 60 bat baino ez ziren irten bizirik. Eta bidaia hark gerora ekarri zuen guztia: indarkeria, kulturen desagerpena...

Espedizio hura itsasgalera hutsa izan zen teknikoki; matematikei kasu eginez gero zeuk aipatu dituzu zenbakiak. Gutxi batzuentzako diru irabazi handien aldean, desastre bat izan zen.

Bostehun urte hauetako kapitalismoaren historiaz ere halako balantze bat egin daitekeela uste dut. Kolonialismoa hemen dago oraindino, gutxienekoa da neokolonialismoa edo globalizazioa deitzea.

Eta testuinguru horretan, non kokatzen duzu Euskal Herria?

Itsasoaren kontrako bazter batean mapetan galduriko jendetxoa zen sasoi hartan Euskal Herria. Eta oraindino ere halako zeozer baino ez da. Subditoak gara oraindino hegoaldean, edo ziudadanoak iparraldean, ongizate gizarte europarreko burgestxoak, baina herritartasunik barik.

Ni neu behintzat herritartasunik barik sentitzen naiz, errepresentatu behar gaituen eraikuntza politikoagaz identifikatu ezinik.

Ilustrazioak liburuaren osagarri dira bakarrik ala gogoetarako bidea ere bai?

Testua eta ilustrazioak batera sortu dira, liburua elkarlanean egin dugu Aresek eta biok. Ares kubatarra da, psikiatra ikasketaz, eta umorista ona.

Liburua adin guztientzat da, baina batez ere nerabeei begira idatzitakoa dela irakurri dut. Horrela da? Horrela bada, zergaitik adin tarte hori?

Nerabea da protagonista eta nerabearen inozentziatik egiten dira galdera asko. Baina nerabe helduentzat da liburua: 12tik 112 urtera arteko nerabeentzat.

> ***Bostehun urte hauetako kapitalismoaren historiaz ere halako balantze bat egin daitekeela uste dut. Kolonialismoa hemen dago***

Pandemiaren ondoren, lehenengo Azoka ‘normala’ izango da aurtengoa. Zelan biziko duzu zuk Azoka?

Iazkoa apartekoa izan zen, bai, eta horren aurretik 1979koan egon nintzen azkenekoz; ikusiko dugu. Hitzaurre batzuk egin ditut eta liburu batzuk aurkezten laguntzeko geratu naiz: Joxemari Auzmendiren omenezkoa, *Gatzaren Zaldi Berdea*, Assata Shakurren autobiografia…

Liburuaren aurkezpenean esan zenuen zure belaunaldikoek bere sasoian euskara grinagaz errekuperatzen zuten moduan errekuperatzen dutela nerabeek gaztelania gaur egun. Bereziki kezkatzen zaituen kontu bat da?

Nerabeak eta beste guztiak erdaraldi etengabean bizi gara. Kolonizaturik gaude; hain kolonizaturik ze, kolonizaturik gaudela ere ezin dela esan. Dena normal dagoela esan behar dugu, eta egiten dugun libreki aukeratzen dugula. Jarrera antikoloniala erretorikoa ez denean txarto ikusita dago, kolonialismoa unibertsala delako, eta badakizu kolonizatuak korrektoa izan behar duela onartua izateko.

Ez dut ez apokaliptikoa ez integratua izan gura. Baina arazo soziolinguistikoak ditugu, eta arazo linguistikoak, eta arazo politikoak, eta arazo ekonomikoak, eta arazo kulturalak. Eta oso *guai* daude gure euskaraldiak gure erdaraldian. Baina euskaldunok dena dugu egiteko.

BIZITZEKO HEZI

KURUTZIAGA IKASTOLA

ESKAINTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta euskaldunak



JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa eta produktu ekologikoak

www.kurutziagaikastola.eus

Bikain · KiVa Ikastola · ikastolenelkartea · ibaizabal IKASTOLA

“Estreinaldian bizi nuena ez dut inoiz bizi izan, 3.000 pertsona zoroak legez txaloka”

Eneko Sagardoy aktore durangarra *Irati* pelikula berriko protagonista da, Edurne Azkarate aktoreagaz batera

Eneko Sagardoy, Enekoren paperean, 'Irati' filmeko eszena batean. DAVID HERRANZ

ZINEA• IGOR GALARZA

Eneko Sagardoy aktore durangarra (Durango, 1994) hara eta hona ibili da azken urteetan. Eta, pelikula baterako bada ere, VIII. mendera joan da oraingoan, ibar bateko jaunaren semearen paperean sartuta *Irati* pelikulan. Durangon datorren zapatuan egongo da ikusgai, hilak 10.

Zure ingurukoek izan dute filma ikusteko aukera?

Bai, eta oso harrituta geratu dira, bai muntaiagaitik bai horrelakorik ikustera ohituta ez egoteagaitik; ez Euskal Herrian bakarrik, Espainiako Estatuan ere ez. Gainera, jendeak oso gustura ikusi du filma, hainbat elementu dagoelako, pelikula historikoa delako, fantasiatik ere baduelako, maitasun istorio bat dagoelako... jendea buru-belarri barneratzen da VIII. mendean, eta hori hunkigarria da. Nahiko pozik gaude, zalantzak genituen-eta ea zer gertatuko zen.

Zer sentsazio sortu zizun estreinaldiak eta momentu hark?

Irati pelikularen estreinaldian bizi nuena ez dut inoiz bizi izan, 3.000 pertsona zoroak legez txaloka. Gainera, nik ez nekien baina Jose Antonio Bayona zuzendari ospetsua bertan zegoen eta Sitgesera joan den urte guztietan horrelakorik ez zuela bizi izan aipatu zuen. Jaialdiko zuzendariak ere harrigarria izan zela esan zigun. Horrez gainera, etxekoak ere hunkituta ikustea, goizeko prentsaurrekoan egondako kazetariak ere zutik txaloka ikustea, hori oso seinale ona da. Gainera, bertan eta beste hainbat zinema jaialditan publikoaren saria irabazteak publikoagaz konektatuko duen seinalea ematen dizu.

Enekok Sagardoytik du ala Sagardoy bihurtu da Eneko?

Beti da norabide biko prozesua. Gero ikusleak horren nahasketa ikusten du. Ni beti ahalegintzen naiz eraldatzen, pertsonaiari bere horretatik heltzeko. Egia esan, beti dago pertsonaiagaz bat egiten duzun ezaugarriren bat, baina kasu honetan zerikusi gutxi dugu.

Izen handiko aktoreen zerrenda dago filmean. Zer ikasi duzu beste aktoreengandik?

Edurnegaz (Azkarate) lan egitea plazer handia izan da niretzat. Bera antzerkigintzatik dator eta lehenengo pelikula zuen. Eta hartu duen diziplinagaz, dedikazioagaz eta esperiantziagaz geratzen naiz. Gauza asko ikusi ditut berarengan ahaztu gura ez ditudanak.

Baduzu esperantzarik Goya sarietarako?

Gatxa izango da, eta nire paperagaitik ez dut esperantza handirik, aurten hautagai handiak daude eta. Gauzak horrela, efektu bereziei, makilajeari, jantziei... horiei bai ikusten dizkiet aukerak. Edurneren lana saritzea gustatuko litzaidake. Bera da *Irati* pelikula eta miresgarria da egin duen lana, eta uste dut emakumezko oso protagonista gutxi ikusi ditugula aurten Espainiako Estatuko zineman.

> ***Edurneren lana saritzea gustatuko litzaidake. Bera da 'Irati' pelikula eta miresgarria da egin duen lana***

Zelako saltoa dago zinematik antzerkira edo antzerkitik zinemara?

Nik nahiko salto naturala egiten dut, batzuetan bietan batera nabilelako lanean. Baina nik sumatzen dudan aldea energia da. Antzerkiak itzaleko lan desatsegina dauka eta leherketa ezin ederragoa, zuzenekoa eta adrenalina betean. Eta pertsonaia ezagutzeko eta esperimentatzeko aukera ematen dizu. Beste aldetik, zinemak teknika ikaragarria du, kamerak daude, teknologia dago, tranpa oso begi bistan egoten da eta pertsonaiaren emozioak eta intentzioak zaintzea oso gatxa izaten da. Beraz, zineman sator lan apur bat egin behar da.

Azoka garaian sartuta gaude. Antzerkigintzan ere igartzen da mugimendua?

Ez, lan baten estreinuan ez du eragiten. Batez ere ez dugulako objektu fisikorik saltzeko. Oso eskertzekoa da Szenatokiaren moduko lekua egotea Azokan, baina ez gara egoten Azokari begira.

Zer da zuretzat Durangoko Azoka?

Usaina gogoratzen dut. Liburuen usaina edo... Sekula ere ez dut ondo eroan jendetza, eta gogoratzen dut nire lehenengo azoketan eszitazioa eta asperdura batzen zitzaizkidala, hainbeste jendegaz. Gaur egun bilkura handi bat legez dut Azoka, sortzaileek euren artean berba egiteko. Hainbat elkarlan ateratzen da bertatik. Uste dut lan handia egiten dela Azokari jarraipena emateko.

Euskararekin, lehenengo hitzetik

1975etik, lehenengoak produktuak euskaraz izendatzen.

Hemengoa izatea ona da

EROSKI zurekin

anboto kide

Anbotokideen txokoa

AZAROKO ZOZKETAK

Hertzainak taldeak abenduaren 17an BEC-en emango duen kontzerturako bi sarrera bikoitz.

*Eman izena gure webgunean.

Alcampo supermerkatuaren eskutik otzara eder bat.

*Anbotokide guztien artean zozkatuko da.

Laika umeentzako antzerkirako sarrera bikoitz bat. Arriola Antzokian abenduaren 18an.

*Eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Aitzindariak dantza ikuskizuna San Agustinen:
Monika Frades Urberuaga

Okm: batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!

"Liburua, ibilbideez gainera inguruko istorioez eta irakurraldiaz gozatzeko eginda dago"

Alpino Tabira Mendi Klubak 'Ermitak bide, Durangaldea Bizi' liburua aurkeztu zuten maiatzean, eta Durangoko Azokako erakusmahaietan ere egongo da

Ibon Murua eta Ramon Castillo, Alpino Tabiraren liburuagaz

LITERATURA • IGOR GALARZA

Alpino Tabira Mendi Klubak *Ermitak bide, Durangaldea Bizi* liburua argitaratu zuen maiatzean. Durangoko Azokan egoteko parada aprobetxatu dute eta abenduaren 10ean berbardia emango dute, goizean. Ibon Murua (Durango, 1985) eta Ramon Castillo (Durango, 1959) izan dira liburuaren egileetariko bi.

Aurkezpena maiatzaren 25ean egin zenuten. Ordutik, zelako erantzuna jaso duzue?

Ibon Murua: Hasieran, bazkideei ale bana eman eta banaketa herriko eta gertuko liburu-dendetan egin genuen. Bideko pauso guztiak guk geuk eman behar izan ditugu, geure eskuekin egin baitugu liburu hau, argitaletxe baten laguntzarik barik; beraz, nondik jo asmatu guran gertuko liburu-dendetara jo genuen.

Ramon Castillo: Uste genuen baino erantzun hobea izan du liburuak, uste genuen baino gehiago saldu da. Azken finean, liburua bera oso ondo eginda dago, argazki aldetik eta testua bera ere txukun geratu da, eta itzulpena ere nahiko ondo. Orokorrean, sorpresa positiboa jaso dugu.

> ***Badago zati tekniko bat, lehenengo zatian. Baina narratiba ipuin baten antzekoa da, gazte batek ondo ulertzeko modukoa***
>
> -

Ibilbideetatik harago doa liburua.

I.M.: Bai. Hala ere, hitzaurrean argi diogu ez garela paleontologoak, ez historialariak, ez gaietan espezializatuak. Handik eta hemendik informazioa biltzen joan gara, Gerediagaren eta beste hainbaten aldizkarietan aurkitu dugun informazioa batzen, eta ibilbideei txertatu diegu. Ez genituen ibilbideen azalpenak "orain eskumara, orain ezkerrera, orain hemendik joan behar dugu" esaldiekin bete gura. Liburua, ibilbideez gainera, inguruko istorioez eta irakurraldiaz gozatzeko eginda dago. Ez dago zertan bideak egin beharrik.

R.C.: Liburuan badago zati tekniko bat, lehenengo zatian. Baina narratiba ipuin baten antzeko kontakizuna da, gazte batek ondo ulertzeko modukoa. Bederatzi ipuin dira. Batzuetan jolasak planteatzen ditugu, irakurleak ibilbidean dagoen zeozer topatzeko ahalegina egin dezan; beste batzuetan, gure pentsamenduak azaleratzen ditugu, besterik barik... Liburuaren haria jolasetan dago, ez da mendiei buruzko liburuetan aurkitu daitekeenaren antzekoa..

Zer kostatu zaizue gehien liburua egiteko?

I.M.: Amateurrak gara honetan, eta zuzenketa motaren bat egin gura genuenean arazoak sortzen zituen maketazioan. Alde horretatik, maketatzaileek sekulako lana hartu zuten eta pazientzia handia eduki behar izan zuten. Beraz, ez da zuzena esatea Ibon eta Ramon direla egileak. Durangoko Azokan bete behar genuen fitxan, egilearen koadroan hainbat egileren izenak ipini ditugu. Auzolanean egindako lana da.

R.C.: Laguntza handia izan dugu. Pertsona askok osaturiko liburua da eta horiek denak dira emaitzaren parte.

Egin duzue liburuko ibilbiderik aurkezpena egin eta gero?

I.M.: Bai, zapatu goizak aprobetxatu ditugu ibilbide horiek egiteko, eta jende ugari etorri da. Esaterako, orain hiru aste egin genuen ibilbideetariko bat, eta 28 lagunek eman zuten izena. Normalean, dozena bat laguneko irteerak izaten dira. Ibilbidean zehar, liburuan agertzen diren konturen batzuk ere azaltzen ditugu.

Familiek egiteko modukoak dira?

R.C.: Ez bakarrik familiek, gazteek ere bai. Alpinon belaunaldi arrakala bat sortu zen, gazterik ez zetorrelako atzetik, eta liburua egiterakoan horixe izan da hausnarketetariko bat. Liburu honek gazteak animatzeko balio dezake. Durangaldeko inguruak ezagutzeko alde batetik, eta ibilbide txikietatik hasi eta afizioa hartuta gure taldeak egiten dituen irteeretara animatzeko bestetik.

Zer suposatzen du zuentzat Durangoko Azokan egoteak?

I.M.: Zabalkundea lortuko dugu, baina kontuan izan behar dugu liburu eta disko asko dagoela. Jendeak gure liburuan arreta jartzea espero dugu, eta ikustea Alpino ez dela Pirinioetara doan edo mendi altuetara begira dagoen taldea bakarrik. Gertuko gauzak ere egiten ditugula azaldu gura dugu. Modu honetara, liburua saldu baino gehiago, Alpino Tabira Mendi Taldeari ikusgarritasuna emateko balio badu poztuko gara.

“Oso liburu praktikoa da, baliagarria ikasleentzat zein fotokazetaritza landu gura duen beste ororentzat”

María Gorosarri Gonzalezek (Durango, 1978) 'Fotokazetaritza' eskuliburua kaleratu du UEUgaz

KAZETARITZA • EKAITZ HERRERA

María Gorosarri González Euskal Herriko Unibertsitateko kazetaritza irakaslea da. Fotokazetaritza lantzeko gidaliburua kaleratu du, ikasleentzat zein jendarte orokorrarentzat baliagarri izan dadin. Argitalpena Udako Euskal Unibertsitatearen eskutik kaleratu du.

Nondik sortu da fotokazetaritza lantzeko eskuliburu hau?

Fotokazetaritza irakasten nabil 2016tik, eta orain arte ez da egon horretarako ikaslibururik. Ingelesezko eta alemanezko liburuak erabili izan ditut. Udako Euskal Unibertsitateak unibertsitate mailako euskarazko eskuliburuak sortzeko diru poltsak antolatzen ditu eta euretariko bat irabazi nuen orain urte bi. Urtebeteko epea nuen liburua idazteko. Garrantzitsua iruditzen zitzaidan fotokazetaritzari buruzko eskuliburua euskaraz izatea. Argazkigintzaren inguruko hizkuntza teknikoa estandarizatu barik egon da euskaraz. Horretarako balio izan du. Horrez gainera, argazkiak kazetaritzaren ikuspegitik lantzeko aukera eskaintzen du, Arte Ederretatik aparte.

Horrenbestez, liburu akademikoa da? Nori zuzenduta dago?

Oso liburu praktikoa da, ikasleek erabiltzeko modukoa, baina beste edozeinentzat ere bada baliagarria. Zergaitik? Liburuko lehenengo ataletan, argazkiak zelan atera eta irudia zelan konposatu zehazten dudalako, besteak beste. Gero badago beste zati bat irudiak software bidez lantzekoa. Erabiltzen ditudan software guztiak askeak dira. Hau da, edozeinek erabili ditzake.

Liburuan zein atal batu dituzu?

Lehenengo atalean argazki kameraren ezarpenak lantzen ditut; bigarrenean, konposizioa; hirugarrenean, tratamendu fotografikoa. Hortik aurrera, Fotokazetaritzaren historia jaso dut. Ingalaterrako eta Alemaniako une historikoei erreparatu diet. Espainiako ikuspegia euskaraz ematea saihestu guran, goragoko iturrietara jo dut hori gureganatzeko, Europako ezagutzara. Hango aro historikoak errespetatuta, gure herrialdean, euskarazko prentsan, zein egoera zegoen aztertu dut. Horrez gainera, fotokazetari ezagunei buruzko lanak jaso ditut. Esfortzu berezia egin dut, batzen dudan gizonezko bakoitzeko emakume bat topatuta. Azken hauek isilpean geratuko ziren bestela. Parekidetasun osoz ekarri ditut.

> ***Edozein argazkik ez du informaziorik ematen, eta edozein argazkik ez du balio gertakari bat azaltzeko***

Euskarazko prentsa aipatu duzu. Zer jaso duzu liburuan?

Esate baterako, Euskal Herriko euskarazko prentsan irudia erabili aurretik, 1896an Californiako Eskual Herria aldizkarian, Ameriketako Estatu Batuetan, irudiak erabiltzen zituztela ikusi dezakegu. Eta, jakina, hori ere euskarazko prentsa da. Argazkiak ez, baina irudiak erabiltzen zituzten.

Fotokazetaritzaz gabiltzala, hausnarketarako galdera. Irudiaren aro honetan, zein leku du fotokazetaritzak?

Esaten da testua Interneten ezagutu badugu, hori, batez ere, konexio kaskarra izateari zor zitzaiola. Gaur egun, konexio onak ditugunez, zuzenean jo dugu irudira. Egia da irudia gaur egungo kulturaren ezaugarri nagusietariko bat dela. Fotokazetaritzak hor daukan egitekoa argazkien eginkizuna zehaztea da. Izan ere, edozein argazkik ez du informaziorik ematen, eta edozein argazkik ez du balio gertakari bat azaltzeko. Adibide modura, Kevin Carter argazkilariaren irudirik ezagunena baliatuko dut. Carterrek Sudango gosetea islatu zuen ume bat eta haren atzean zegoen sai bat irudian hartuta. Irudiak iradokitzen du saia umearen zain dagoela, baina hori ez da egia. Saiak ez zuen neskatoa jan. Neskatoa altxatu egin zen eta aurrera egin zuen. Argazkiak, une horrek, segundo horrek, ez du errealitatea islatzen, baina bai egoera.

> ***Irudi gogorretara ohitu gara, katastrofeen aurrean enpatia galdu dugu, zelanbait***

Ukraina, 2004ko tsunamia Thailandian, Irailaren 11,... fotokazetaritza ezinbestean dago gertakari esanguratsuei lotuta?

90eko hamarkadan, Jugoslaviako gerrek joera bat ezarri zuten fotokazetaritzan. Lehenengoz, pertsona zuriak agertzen ziren argazkietan kaltetuta. Horrek irudi kontsumorako joera bat ezarri zuen. Gervasio Sánchez fotokazetari espainiarrak dio Balkanetako gerrak amaitu zirenean Europan ez zegoela beste argazki iturririk, eta, horrenbestez, Afrikako gerra krudeletara joan behar izan zutela hango irudiak oso gogorrak zirelako. Zer gertatu da gaur egun? Irudi gogor horietara ohitu garela. Zuk aipaturiko kasu horiek ez gaituzte ikaratzen. Zelanbait, enpatia galdu dugu katastrofeen aurrean.

Plateruenak berriro zabalduko ditu bere ateak, martxoaren 3an, Durangoko Udalak kudeaketa bere gain hartuta

Proiektuaren aro berriak kudeaketa "komunitarioa eta publikoa" batuko ditu eta Maider Larrañaga izango da koordinatzaile berria

PLATERUENA • ARITZ MALDONADO

2023ko martxoaren 3a izango da Plateruenaren bigarren aroaren irekiera data. Baina aurretik hitzordu bi izango ditu. Alde batetik, abenduaren 7tik 11ra bitartean Ahotsenea gunea izango da; bestetik, Gabonetako egitaraua prestatzen dabiltzala azaldu dute, aste honetan, udal ordezkariek. Etapa berri hau Maider Larrañagak gidatuko duela azaldu dute prentsaurrekoan. Urte askoan San Agustin kulturgunean lan egin du Larrañagak. Kudeaketarako eredu berria ere izango du Plateruenak. Larrañagak gogotsu ekin dio erronkari. “Plateruenaren itxiera astindu ederra izan zen durangarrontzat eta euskal herritarrontzat, eta eraikin honen tamainako buruhausteei irtenbideak eman behar izan dizkiegu denbora tarte honetan, baina uste dugu orain arteko zailtasun guztiek indartu egin dutela proiektu berri hau”, esan du.

Durangoko Udalak egitarau "xume eta herrikoia" prestatu du Gabonetarako

Plateruena berriak kudeaketa eredu berria ere izango du: kudeaketa "publikoa eta komunitarioa", azaldu du Durangoko udal gobernu taldeak. Izan ere, Plateruenaren kudeaketa bere gain hartzea erabaki du udalak. "Irtenbide nagusi bi genituen mahai gainean. Alde batetik, kudeaketa lehiaketa publikora atera eta berau enpresa edo elkarte pribatu baten esku uztea, eta, bestetik, Durangoko Udalak bere gain hartzea kultur eskaintzaren kudeaketa. Gauzak horrela, udalak bigarrenaren alde egin du", azaldu zuen Ane Abanzabalegi zinegotziak martitzenean emandako prentsaurrekoan. "Apustu handia egin dugu kulturaren alde azken urteetan, baina kontziente ginen Plateruenak utzitako hutsuneaz. Orain hutsune hori ilusioz eta baliabide publikoz betetzera goaz, kulturgintzan, osasungitzan lez, zerbitzu publiko duinen alde egiten dugulako", gehitu zuen Patxi Lakuntza zinegotziak.

Lehenengo urte horretarako, aurrekontuetan 313.000 euroko partida aurreikusi du Durangoko Udalak, eta egitarau horretan jada lanean dabiltzala aurreratu du koordinatzaile berriak, "irekiera progresibo" bat edukitzeko horrela. Gabonetako egitarauan, Alertaren eta udal musika banden kontzertuak izango dira, besteak beste, eta AEK euskaltegiak Mintzodromoa egingo duela aurreratu dute.

Kultur mahaia

Kudeaketa eredu berriaren gakoetariko bat kultur mahaiaren osaera izango da, Maider Larrañagaren esanetan: "Plateruenaren moduko gune batek erabilera asko izan dezake eta durangar guztien iritzia ezagutu gura dugu. Kultur mahai horrek entzuketa aktiboa eta elkarlan hori sustatu gura du". Horrenbestez, "kulturgintzan dabiltzan" herritarrek ere parte hartu ahalko dute gune horretan. "Zenbat eta kultur mahai sendoagoa, orduan eta etorkizun oparoagoa izango dugu herrian", esan zuten.

Udal ordezkarien esanetan, Plateruenaren itxieraren ondorioz "eraikin huts bat baino gehiago" jaso da, "ondare kultural baliotsua", hain zuzen ere. Horrela, proiektu berriak hiru ardatz izango ditu aurrerantzean: "Durangoren euskalduntzean laguntzea, herriko elkarte eta eragileei aterpea eskaintzea eta euskal kulturgintzako sortzaileen plaza garrantzitsua izatea", azaldu zuen Maider Larrañagak. Horrez gainera, Plateruenaren programazioa "nagusiki euskaraz" izango dela zehaztu zuen. Ostalaritza eta kulturgintza uztartzeko formulari buruz oraindino gogoeta egiten ari direla azaldu zuen.

Era berean, udal ordezkariek esker oneko berbak eduki zituzten prentsaurrekoan Plateruena ta gero zer? dinamikaren parte hartzaileentzat.

EAJ, kritiko

Bestalde, Durangoko EAJ kritiko agertu da eta Plateruneko kudeaketa eredua alde bakarretik erabakitzea salatu du. “Beste behin ere, gobernu taldeak alde bakarrez harturiko erabaki batekaz topo egin dugu. Gobernu talde honek harritu egiten gaitu duen gardentasun eta informazio faltagaz”, kritikatu du Mikel Ortega EAJko zinegotziak. Irailean Iker Urkiza EH Bilduko zinegotziak adierazi zuen urtea amaitu aurretik Plateruena berriro zabaltzeko asmoa zuela udalak.

Patxi Lakuntza, Maider Larrañaga eta Ane Abanzabalegi.

Plateruena.

SZENATOKIA

Abenduak 7, eguaztena

19:00 - 20:00 DrunDA!

Abenduak 8, eguena

12:30 - 12:55 Luze edo Motz. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai

13:00 - 13:25 Zuri. Goitibera antzerki taldea

13:30- 13:50 Deus ex twingo. Anodino teatroa

17:30 - 17:55 Luze edo Motz. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai

18:00 - 18:25 Zuri. Goitibera antzerki taldea

18:30- 18:50 Deus ex twingo. Anodino teatroa

19:00 - 19:25 Luze edo Motz. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai

19:30- 19:50 Deus ex twingo. Anodino teatroa

Abenduak 9, barikua

12:30 - 12:55 Amaya. Amaia Lizarralde eta Olatz Beobide

13:00 - 13:25 Nire zigilua. Alain Lersundi

13:30 - 13:55 Amaya. Amaia Lizarralde eta Olatz Beobide

17:30 - 17:55 Amaya. Amaia Lizarralde eta Olatz Beobide

18:00 - 18:25 Nire zigilua. Alain Lersundi

18:30 - 18:55 Kilimaterioa. Kaitin Allende, Oihane Perea, Iratxe Ibarra eta Irati Anda

19:00 - 19:25 Nire zigilua. Alain Lersundi

19:30 - 19:55 Kilimaterioa. Kaitin Allende, Oihane Perea, Iratxe Ibarra eta Irati Anda

Abenduak 10, zapatua

12:30 - 12:55 Denboraren korapiloak. Tartean Teatroa

13:00 - 13:45 Lasterketa bat egin txaloka ero moduan. Libe Mendizabal eta Amaia Salazar

13:30 - 13:55 Barrexerka

17:30 - 17:55 Denboraren korapiloak. Tartean Teatroa

18:00 - 18:45 Lasterketa bat egin txaloka ero moduan. Libe Mendizabal eta Amaia Salazar

18:30 - 18:55 Denboraren korapiloak. Tartean Teatroa

19:00 - 19:55 Barrexerka

Abenduak 11, domeka

12:30 - 12:50 Flamenkito. Badut Teatroa

13:00 - 13:10 Hau ere banaiz. Garazi Abraldes Azkorbebeitia

13:30 - 13:55 Elurzuriren hiru heriotzak. Khontaira

17:00 - 17:20 Flamenkito. Badut Teatroa

17:30 - 17:40 Hau ere banaiz. Garazi Abraldes Azkorbebeitia

18:00 - 18:25 Elurzuriren hiru heriotzak. Khontaira

Karrika taldeak antzerki inprobisazio tailerra emango du Ikasleen Egunean, San Agustin kultur gunean

Szenatokiko arduradunek pieza laburrak taularatzeko aukera eman dute. 29 proposamenetik 12 aukeratu dituzte

SZENATOKIA • **J.G.**

San Agustin kultur guneak askotariko kultur proposamenak taularatuko ditu datozen egunetan. Durangoko Karrika antzerki taldeak inprobisazio tailerrak emango ditu Ikasleen Egunean, abenduaren 7an. Arratsaldean, DrunDa! ekitaldiagaz Azokaren inaugurazio ofiziala egingo dute Barrexerkako gazteen eskutik.

Pieza laburrak

Abenduaren 8tik 11ra bitartean, egunero 12:30ean hasiko dute egitaraua. Goizetan hiru saio egingo dituzte, eta arratsaldeetan bost. Egunean hiru talde egongo direla azaldu du Arantza Arrazola Szenatokiko arduradunak. Egitaraua *Luze edo Motz* saioagaz hasiko dute, Mirari Martiarenaren eta Idoia Torregarairen bakarrizketekin.

Bestalde, Pabilioi 6k pieza laburren jaialdia egiten du eta sariketa hartako parte hartzaile ugari San Agustinera aurkeztu dira. Izan ere, aurten pieza laburrak taularatzen dituzten sortzaileek Azokako gune honetan parte hartzeko aukera izan dute. "Antzerkiak beharrizan tekniko zehatzak dituenez, orain arte geuk egiten genuen antzezlanen aukeraketa. Beste guneetan, ostera, parte hartzeko deialdia zabaltzen zuten. Aurten, guk ere aukera hori eman dugu eta 29 proiektu aukeztu ziren. Horietatik 12 aukeratu ditugu", azaldu du Arrazolak. Gaineratu duenez, aniztasuna egotea gura izan dute, "umore apur bat, drama, bakarkakoak, talde lanak, ezagunak eta hasiberriak".

Durangaldeko parte hartzaileei dagokienez, Garazi Abraldesek *Hau ere banaiz* pole dance ikuskizuna taularatuko du. Azokako antolatzaileek ANBOTOn egindako elkarrizketaren bitartez ezagutu zuten artista durangarra eta parte hartzeko gonbita egin diote. Abenduaren 11n izango da, arratsaldean, Szenatokian.



Szenatokia gunea San Agustin kultur gunean dago. **GEREDIAGA ELKARTEA**

AHOTSENEA

Abenduak 7

Plateruena (Ahotsenea Zuzenekoak)

14:30 - 15:00 Olaia Inziarte. Lehengo Lepotikan Burua

15:40 - 16:10 Maraca Diablo

16:50 - 17:20 Zakill. Pozoina

18:00 - 18:30 Sua. Gorde genituen beldurrak

19:10 - 19:40 Bolbora. Bizi zioa

20:20 - 20:50 Goxua´n Salsa

21:30 - 22:00 Delirium Tremens. Hordago

Musika Eskola (Ahotsenea Solasaldiak)

16:00 - 16:00 Smith & Mac. 'Puta zikinak' Itzultzailea: Amaia Astolaza. Katakrak.

16:30 - 17:00 Kepa Iribar. '72 ordu' Erein

17:00 - 17:30 Assata Shakur. 'Autobiografia bat' Itzultzailea: Danele Sarriugarte. Katakrak.

17:30 - 18:00 Kae Tempest. 'Antzinako berri berriak' Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun. Igela.

18:00 - 18:30 Amaia Telleria. 'Zuhara Clionaren kanpaiak' Alberdania

18:30 - 19:00 Oskar Gaztelu. 'Heriotzari aurrez aurre begira' Erein

19:00 - 19:30 Elisa Levi. 'Nik ez dakit beste gauza batzuen berri' Itzultzailea: irene Aldasoro. Alberdania.

19:30 - 20:00 Kepa Junkera. 'Berpiztu' No problem editoriala

Abenduak 8

Ahotsenea Musika – Plateruena (Ahotsenea Zuzenekoak)

11:00 - 11:30 Bilaka. Gernika

12:10 - 12:40 Piztiak. XXX

13:20 - 13:50 Ines Osinaga. #itsasoadabidebakarra

14:30 - 15:00 Rodeo. Hybris

15:40 - 16:10 Neomak

16:50 - 17:20 Hibai. Harizko zubiak

18:00 - 18:30 Kurkuma. Bel3zidorrean hör

19:10 - 19:40 Willis Drummond. Hala ere

20:20 - 20:50 Kristonak. Aho bete hortz

21:30 - 11:00 Sutan. Il

Musika Eskola (Ahotsenea Solasaldiak)

11:00 - 11:30 Leire Ibarguren. 'Petare. Miren Egigurenen puskak' Txalaparta

11:30 - 12:00 Joseph Brodski. 'Ur-marka. Veneziari buruzko saiakera' Katakrak

12:00 - 12:30 Lidia Txukovskaia, Lidia Zukhova. 'Haurrek hitza' Itzultzailea: Josu Zabaleta. Katakrak.

12:30 - 13:00 Katixa Agirre. 'Berriz zentauro' Elkar

13:00 - 13:30 Unai Iturriaga eta Sanvi. 'Haur besoetakoa. Itsasoan urak handi' Ikastolen elkartea

13:30 - 14:00 Garazi Albizua, Olga Carmona, Bertol Arrieta eta Sandra Garayoa. 'Iruleak' eta 'Hodeien gaineko aldean' Txalaparta

14:00 - 14:30 Irene Pujadas. 'Puskak' Itzultzailea: Amaia Apaulaza. Igela.

16:00 - 16:30 Anton Txekhov. '31 ipuin' Itzultzailea: Iker Sancho. Elkar.

16:30 - 17:00 Fito Rodríguez. 'Enararen esanak' Dakit

17:00 - 17:30 Asun Agiriano eta Marina García. 'Atzamarra'

17:30 - 18:00 Harkaitz Cano. 'Pozaren erdia' Susa

18:00 - 18:30 Elena Olave. 'Keinura itzuli'' Susa

18:30 - 19:00 Ekaitz Goikoetxea. 'Balio erantzia' Balea

19:00 - 19:30 Ruben Ruiz. 'Beti mugan' Elkar

19:30 - 20:00 Karlos Aretxabaleta 'Txapel'. 'Sex-sua' Elkar

Abenduak 9

Plateruena (Ahotsenea Zuzenekoak)

11:00 - 11:30 Lumi. Bezperaren dirdira

12:10 - 12:40 Ilargi. Beldurrekin dantzan

13:20 - 13:50 Agur

14:30 - 15:00 Mirua

15:40 - 16:10 Xsakara. Lurrikarak

16:50 - 17:20 Mugan. Bizirik ez bagaude

18:00 - 18:30 Kokein. Atomika

19:10 - 19:40 Keia. Erregaia

20:20 - 20:50 Mice. Lautada

21:30 - 22:00 Ezpalak. Hortz aina hots

Ahotsenea Literatura – Musika Eskola (Ahotsenea Solasaldiak)

11:00 - 11:30 Pier Paolo Pasolini. 'Kale gorriko umeak' Itzultzailea: Fernando Rey. Igela.



AHOTSENEA

11:30 - 12:00 Marina Garcés. 'Filosofia amaitu gabea' Itzultzailea; Olatz Mitxelena. Jakin.

12:00 - 12:30 Aritz Gorrotxategi.'Uda betea' Elkar

12:30 - 13:00 Mikel Alvarez. 'Euskalia' Elkar

13:00 - 13:30 Ganbila bilduma. 'Album' eta 'Esperoan' EHAZE, Susa

13:30 - 14:00 Victor Catalá. 'Atsoa' Hautaketa: Blanca Llum Vidal

14:00 - 14:30 Maite Lopez Las Heras."Amatu" Alberdania

16:00 - 16:30 Irene Sola. 'Dikeak' Itzultzailea: Joxan Elosegi. Alberdania

16:30 - 17:00 Aiora Zabala. 'Natura gure esku' Alberdania

17:00 - 17:30 Nerea Ibarzabal. 'Bar Gloria' Susa

17:30 - 18:00 Andoni Urzelai. 'Ametsen trafikatzailea' Elkar

18:00 - 18:30 Iñaki Cid eta Karmele Mitxelena. 'Behin batean Loiolan' eta 'Haragizko mamuak' Donostia Hiria Saria

18:30 - 19:00 Leire Milikua. 'Lur gainean, itzal azpian' Susa

19:00 - 19:30 Abdela Taia. 'Zure argitan bizitzea' Itzultzailea: Patxi Zubizarreta. Alberdania.

19:30 - 20:00 Marijo Ezeizabarrena eta Junkal Gutierrez. 'Hotsetik hitzera' Nola bereganatzen dute hizkuntza haur euskaldunek? Erein.

Abenduak 10

Plateruena (Ahotsenea Zuzenekoak)

11:00 - 11:30 Pasadena. Izpia

12:10 - 12:40 Assata. Oasia

13:20 - 13:50 Asla. Nire eguzkia

14:30 - 15:00 Kyxo. Lyno

15:40 - 16:10 Peru Galbete. Beiratu

16:50 - 17:20 Esti Markez. Hitzekin jolasean

18:00 - 18:30 Sega Sound Killers. Dolu

19:10 - 19:40 Dukkha. Zain

20:20 - 20:50 Bengo. Bizirik

21:30 - 22:00 Ødei. Terapia

Musika Eskola (Ahotsenea Solasaldiak)

11:00 - 11:30 Anjel Lertxundi. 'Desertuan behatxuloa' Alberdania

11:30 - 12:00 Jon Eyherabide eta Xabier Sagasta. 'Hamalau' Gatuzain

12:00 - 12:30 Aingeru Epaltza. Erretzaile damutuen konpainia. Elkar

12:30 - 13:00 Iban Zaldua. 'Ipuina engainua da' Elkar

13:00 - 13:30 R.W. Connell. 'Maskulinitateak' Itzultzailea: Ane Garcia. Jakin - Elkar.

13:30 - 14:00 Nerea Loiola. '7G udalekuak' Erein

14:00 - 14:30 Luisa Carnés. 'Hamairu ipuin' Itzultzailea: Danele Sarriugarte. Erein.

16:00 - 16:30 Aritz Galarraga. 'Humaniatatearen une gorenak' Alberdania

16:30 - 17:00 Adur Larrea. 'Lurbinttoko ohoinak' EKE-Elkar soken beka.

17:00 - 17:30 Iñigo Antsorregi. 'Nire minaren etxean' Elkar

17:30 - 18:00 Anari Alberdi Santesteban. 'Gari eta goroldizko' Susa

18:00 - 18:00 Jose Luis Otamendi. 'Landura' Susa

18:30 - 19:00 Jon Arretxe. 'Lyrica garaia' Erein

19:00 - 19:30 Andoni Agirrezabala Izagirre. 'Etxe berdea' Erein

19:30 - 20:00 Miren Azkarate. 'Ikusezinak. Erbesteratuen haurrak' Baigorri argitaletxea

Abenduak 11

Plateruena (Ahotsenea Zuzenekoak)

11:00 - 11:30 Arima Soul. Beltz kresaltsua

12:10 - 12:40 Fufu. Labanak

13:20 - 13:50 Orbel. Hegan

14:30 - 15:00 Txost!. Euri-ura

15:40 - 16:10 Watson. Bobi

16:50 - 17:20 Irtera

18:00 - 18:30 Merina Gris. Zerua orain

19:10 - 19:40 Janus Lester. Ez gaitzala loak harrapatu

20:20 - 20:50 Burutik. Hamabost segundu

21:30 - 22:00 Mairu

Musika Eskola (Ahotsenea Solasaldiak)

11:00 - 11:30 Xalbat Itzaina & Paxkal Bourgoin. 'Muga guztien gainetik' Ikas

11:30 - 12:00 Raul Alfaro. 'Bixente' Zortziko

12:00 - 12:30 Txomin Heguy. 'Lur ilaunduaren loreak' Maiatz

12:30 - 13:00 Munduko poesia kaierak. Anna Akhamatova. Itzultzailea: Josu Landa / F. Garcia Lorca. Itzultzailea: Juan Luis Zabala. Susa.

13:00 - 13:30 Angel Erro. "Poema liburu bat -irakurtzeko jarraibideak" Erein

13:30 - 14:00 Txakur gorria. 'Denboraz. Galde-erantzunen bilduma' Txakur gorria

14:00 - 14:30 'Urrun da zeru urdina. Ataramiñe 2002-2022'. Bildumagilea: Jokin Urain

16:00 - 16:30 Galo Martinez de la Pera. 'Emearen bidea supergizakiaren aroan' Alberdania

16:30 - 17:00 Josu Jimenez Maia. 'Hitzen hasperenak' Maiatz

17:00 - 17:30 HATSAren poesia bilduma

17:30 - 18:00 Kepa Altonaga. 'Axularren gerizpean' Pamiela

18:00 - 18:30 Izaskun Etxeberria Zufiaurre. 'Esaten ez den guztian' Pamiela

18:30 - 19:00 Jose Enrike Urrutia Capeau. 'Francisco de Garay-en urrea' Pamiela

19:00 - 19:30 Nerea Arrien. 'Zoonimia' Xabier Lete Poesia Saria

KABIA

Abenduak 7, eguaztena

16:30 - 17:00 2deo Laborategia. Euskal edukien plataformak

16:30 - 17:00 2deo Laborategia. Euskal edukien plataformak

17:00 - 17:30 Frontoi: Antzokiaren magia eremu birtualean. Euskal edukien plataformak

17:30 - 17:45 Memeka: Euskarazko meme sortzailea. Euskal edukien plataformak

17:45 - 18:00 Balea Funk: Musika eta podcast libreak. Euskal edukien plataformak

18:00 - 18:30 Appa hi! Euskal edukien plataformak

18:30 - 19:00 Gernika 2037. Sortzaile digitalak

19:00 - 20:00 Triklatua: trikitixa eta teklatu baten arteko hibridoa. Sortzaile digitalak

Abenduak 9, barikua

10:30 - 11:00 Barraka prentsaurrekoa. Ibai Aizpurua

11:00 - 14:00 Gamer Gela. Jolasteko gune irekia

11:30 - 12:00 Euskal bideojoko sortzaileak ezagutzen... Game Erauntsia

16:00 - 19:30 Gamer Gela. Jolasteko gune irekia

17:00 - 18:00 Rola euskaraz: zer? nola? zergatik? Rolariak

DURANGO +

Abenduak 7, eguaztena

10:30 - 20:00 Gaurko euskal eskultura. Eskuhaldunak Eskultoreen Elkartea

10:30 - 20:00 Ramon de Zubiaurre. Sorterriaren kolorea (1882 - 1969)

11:00 - 21:00 VI. Eixu Azoka. Artisau eta sortzaileak

Abenduak 8, eguena

10:30 - 20:00 Gaurko euskal eskultura. Eskuhaldunak Eskultoreen Elkartea

11:00 - 20:00 (H) AMAR. Soinu instalazioa. Durangoko Museoan

11:00 - 20:00 Ramon de Zubiaurre. Sorterriaren kolorea (1882 - 1969)

11:00 - 21:00 VI. Eixu Azoka. Artisau eta sortzaileak

12:00 - 13:00 Bagara Saila. Pamiela

Abenduak 9, barikua

10:30 - 20:00 Gaurko euskal eskultura. Eskuhaldunak Eskultoreen Elkartea

11:00 - 20:00 (H) AMAR. Soinu instalazioa. Durangoko Museoan

11:00 - 20:00 Ramon de Zubiaurre. Sorterriaren kolorea (1882 - 1969)

12:00 - 13:00 Sastraka. Pello Lizarralde, Jose Ignacio Agorreta, Imanol Ubeda eta Imanol Rayo

18:00 -19:00 Pol . len Edicions: Itzulpena elkartasuna da. Euskal Herriko literatura, poesia, komikia eta saiakera, katalanez

Abenduak 10, zapatua

10:30 - 20:00 Gaurko euskal eskultura. Eskuhaldunak Eskultoreen Elkartea

11:00 - 20:00 (H) AMAR. Soinu instalazioa. Durangoko Museoan

11:00 - 20:00 Ramon de Zubiaurre. Sorterriaren kolorea (1882 - 1969)

14:30- 21:00 VI. Eixu Azoka. Artisau eta sortzaileak

18:00 - 19:00 Iñaki Segurola etorriko ez litzatekeen ekitaldia. Alberdania

19:30 - 21:00 Txistua XXI. mendean. Silboberri Txistu Elkartea

Abenduak 11, domeka

10:30 - 20:00 Gaurko euskal eskultura. Eskuhaldunak Eskultoreen Elkartea

11:00 - 20:00 (H) AMAR. Soinu instalazioa. Durangoko Museoan

11:00 - 20:00 Ramon de Zubiaurre. Sorterriaren kolorea (1882 - 1969)

11:00 - 21:00 VI. Eixu Azoka. Artisau eta sortzaileak

RPS.: 57/16
pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia
Muruetatorre, 2D · 48200 Durango / pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

DESGUACES PILASTRA
• CAT zk. EU2/097/04
• Desegiteko diren ibilgailuen erosketa
• Ordezko pieza erabilien salmenta
• Grua zerbitzua
Administrazioa, bajak eta faxa: 946 218 079
Osagarrien salmenta: 946 201 787
e-mail: desguacespilastra@gmail.com
Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA (Zugastietara bidean)

“Lanbide tradizionalak jasotzeko zaletasuna izan dut beti, kuriositatea gehiago jakiteko”

Jesus Mari Arruabarrena argazkilariak lan berria kaleratu du, *Lege zaharrean: lanbideak galzorian*. Bertan, antzinako lanbideen inguruko bilduma bat egin du. Abenduaren 11n Talaian aurkeztuko du, 12:00etan

Jesus Mari Arruabarrena Gaztelurrutia
Argazkilaria
1964

PATXI GRANADO

ARGAZKIGINTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

***Lege Zaharrean: lanbideak galzorian* liburua kaleratu duzu. Zertaz doa?**

Argazki liburua da, lanbide tradizionalen ingurukoa. Bertan hainbat lanbide jorratzen dut, 26 guztira. Eta gauzak sinplifikatze aldera, bost ataletan banatu ditut: baserriko lanbideak, basoko lanbideak, tailerreko lanbideak, hiriko lanbideak eta itsasoko lanbideak. Liburuan lanbide piloa dago: karegintza, arotzeria, uztarrigintza, zahatogintza eta alga bilketa, besteak beste. Lanbiderik gehienak, horietariko artisaurik gehienak, bizkaitarrak dira. Baina Bizkaian topatu ezin izan ditudan lanbide batzuk, esaterako, Nafarroan topatu ditut.

Zer kontatu gura izan duzu lan honegaz?

Ez da liburu artistiko bat, liburu dibulgatibo bat da. Horixe da lan honen filosofia. Lanbide tradizionalak jasotzeko zaletasuna izan dut beti, kuriositatea gehiago jakiteko, eta lan honetan lanbide horiek jaso gura izan ditut. Lanetako teknika eta prozesuak baino gehiago, lanbide horietako giroa eta atmosfera jaso gura izan ditut. Hala ere, kasu batzuetan prozesuak ere nahiko zehatz agertzen dira.

Bestalde, nahiz eta argazki liburu bat izan, lanak beste osagai bat ere badu. Eta osagai hori hitza da. Artisau, baserritar zein langileekin egon naizenetan, euren datuak, lanbidearen azalpen orokorra eta lanbideko hizkera ere jaso ditut. Ahalik eta zorroztasunik handienagaz egiten ahalegindu naiz.

Zein sasoitan ateratako argazkiak dira?

Hiru hamarkadatan ateratako argazkiak jasotzen ditut. 90eko hamarkadan hasiko nintzen gutxi gorabehera lanbideak fotografiatzen; astiro-astiro hasi nintzen, tenplau. Azken argazkiak aurten atera ditut, 2022an.

Zer suposatzen du zuretzat liburu honek argia ikustea?

Alde batetik, kajoian lo egon den lan bat berpiztu egin da, eta, beste alde batetik, fase bati amaiera ematen diot. Pozgarria ere bada denbora asko eman duzun lan bat amaituta ikustea, txukun argitaratuta ikustea. Gainera, kontu honetan hartu-eman estuak ere sortu ditut askogaz.

Durangoko Azokan aurkeztuko duzu lana, Talaian, abenduaren 11n. Zer suposatzen du horrek zuretzat?

Urduritasuna batez ere, jende aurrean agertze horrek asko urduritzen nau eta. Azken batean, gurea ezkutuko lan bat da eta kamera atzetik aurrera pasatuko gara, eta horrek, Durangoko Azokan lana aurkezteak, beste gauza batzuk eskatzen ditu: jendaurrean aritzea, berbetan etorria izatea eta gaiari buruz asko jakitea, besteak beste.

Baina, beste alde batetik, niretzat Azoka oso plaza garrantzitsua da; beraz, bertan egotea ezinbestekoa da, egin beharreko lan bat.

"Aurten umeak eta gazteak Saguganbaran libre ibili ahal izango dira, eta dena ikutzeko lasaitasunagaz"

Martxel Zubia Arrinda (Abadiño, 1995) Saguganbara guneko arduraduna da. Berbaro elkarteak gune honen irudia berriztu du, Uxue Egia diseinatzailearen laguntzagaz

Saguganbara Elkartegiko beheko solairuan prestatzen dute.

SAGUGANBARA • JONE GUENETXEA

Azokak badu txoko berezi bat, Berbaro euskara elkarteak mimo handiz landurikoa: Saguganbara. Gune honetan irakurle hasiberriei, umeei eta gazteei begirako egitaraua prestatu dute.

Ezagutzen ez dutenentzat, zer da Saguganbara?

Durangoko Azokaren barruan umeei zuzenduta dagoen gunea da. Ahotseneakoa musikarena edo Irudieneakoa ikus-entzunezkoena den legez. Haurrak eta gazteak literaturara zuzenduriko txokoa da. Ipuin kontalariek aurkezpenak egiten dituzte; antzerkiak eta tailerrak egoten dira...

Ohiko azokara bueltatuko garela izan zen azokako aurkezpeneko mezua. Saguganbaran ere bai.

Aurreko edizioetako neurriak gune guztietan aplikatu ziren arren, gurean bereziki igarri genuen hori. Gure hartzaileak umeak izanda, oso agerian geratzen zen aforoa mugatzen zenean; gauzak ikutzeko beldurra zegoen, espazioa bete eta hutsitu egiten zen eta aireztatu egin behar izaten zen. Aurten umeak eta gazteak Saguganbaran libre ibili ahal izango dira, eta dena ikutzeko lasaitasunagaz.

Zein material edukitzen duzue Saguganbaran?

Sasoi honetan Irakurgida kaleratzen dugu eta katalogo horretako liburuak Saguganbaran egoten dira. Haur eta gazteentzako 2022ko argitalpenak eta 2021eko gomendioak jasotzen ditugu. Aurkezpenak egoten diren bitartean ez, baina eguerdietan irakurketa librerako tartea izaten da.

Durangaldera begira, egitarauko zein ekitaldi nabarmenduko zenituzke?

Abenduaren 7an, ikasleen goiza Mireia Delgado durangarraren *Literakzioa* tailerragaz hasiko dugu. Zornotzako Karmengo Ama ikastetxeko ikasleak etorriko dira. Arratsaldean Usue Egia durangarrak ilustrazio tailerra egingo du. Amaia Egidazuk eta Saroa Bikandik *Poltsikorako poemak* aurkeztuko dute. Eider Eibarren *Maieur euskaraz marrazten dugu* aurkeztuko du. Bestalde, Etxepare Saria jaso duen *Kiratsa* lana azpimarratuko nuke, eta baita Ene Kantak lako klasikoak ere.

> ***Abenduaren 7an, ikasleen goiza Mireia Delgado durangarraren Literakzioa tailerragaz hasiko dugu***

Aurten, Saguganbararen itxura aldatu duzue.

Bai, itxuraldatuta gatoz. Hormetako ilustrazio berriak Usue Egiak egin ditu.

Azokatik kanpora, Durangaldeko ikastetxeekin Haur Literatur Aretoa antolatzen duzue irakurzaletasuna bultzatzeko

Bai, haur eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea du helburu. Berrizen, Zaldibarren eta Zornotzan egon gara dagoeneko. Orain Zornotzan gaude. LHko ikasleak izaten dira.

Zure lehenengo urtea da arduradun lez Saguganbaran. Zelan daramazu ardura hori?

Berbaron orain urtebete hasi nintzen lanean, eta esan zidatenean nire proiektuetariko bat Saguganbara izango zela asko poztu ninduen, motibatzen nauen ekimen bat delako. Lan handia du atzean, baina lantalde ona dugu. Gainera, Gerediagagaz urte osoan batzartzen gara antolaketa errazteko. Data honetarako gutxi gorabehera, dena prestatuta izaten da. Gerediagatik gauzak asko errazten dizkigute.

SAGUGANBARA

Abenduak 7, eguaztena

17:00 - 18:00 Ilustrazio tailerra. Usue Egia

Abenduak 8, eguena

11:00 – 11:30 Din Dilin Dan. Pello Añorga eta Saroa Bikandi

12:00 – 12:30 Kixkur, Pinttoren arreba. Iñigo Astiz eta Mikel Valverde

13:00 – 13:30 Yako Kokomoko. Kris Etxabe eta Paul Caballero

14:00 – 14:30 Poltsikorako poemak. Amaia Egidazu eta Saroa Bikandi

15:30 – 16:30 Potx eta Lotx, aireportuan. Pailazoak

17:00 – 17:30 Anna Kopek eta matrioxken kondaira. Haritz Larrageta eta Marko

18:00 – 19:00 Munduenea. Munduko ipuinen etxea. Labayru Fundazioa

Abenduak 9, barikua

11:00 – 11:30 Txalopinak, zaharberritutako kanta finak. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena

12:00 – 12:30 Olentzero-enborra. Txontxe Etxebarria eta Malen Amenabar

13:00 – 13:30 Paperezkoak, altxor bat hilero. Imanol Agirre, Olatz Azpiazu eta Ibai Arrillaga

16:00 – 16:30 Mari, Meri eta Mori sorgin ausartak. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena

17:00 – 17:30 Amaiur. Irati Azkue, Amaia Elizagoien eta Irati Celestino

Abenduak 10, zapatua

11:00 – 11:30 Kiratsa. Iban Illarramendi eta Eider Adeletx

12:00 – 12:30 Patata eta tomatea, tripontzi parea! eta Tipula eta erremolatxa, hau pagotxa! Irati Garmendia eta Ane Arzelus

13:00 – 13:30 MAEIOUR Euskaraz marrazten dugu! Eider Eibar eta Josu Cobelo

16:00 – 16:30 Kamishibaizalea. Iñaki Martiarena 'Mattin'

17:00 -17:30 Naian. Nerea Loiola eta Jon Aranguren

18:00 – 18:30 Olentzero ipuinen herrialdean. Vivim del Cuentu taldea

Abenduak 11, domeka

11:00 – 11:30 Txikikondairak. Xandra Bilbao eta María Santórum (Ed.)

12:00 – 12:45 Ene Kantak dantzan

16:00 – 16:30 MARE, ilargiari poemak. 1545 argitaletxea: Eneko eta Xabi Salaberria

16:45 – 17:30 Itsaso Bizia. MATER Ontzi Museo Ekoaktiboa

18:00 -19:00 Familia jolasean. Olgeta

Eider Eibar Zugazabeitia
Ilustratzailea
ZORNOTZA | **1980**

"Bideojokoan euskarak grafikoki pisu handiagoa izatea gura izan dugu"

Eider Eibarrek eta Josu Cobelok 'Maeiour, euskaraz marrazten dugu!' bideojokoa sortu dute marrazkiak eta euskara uztartuz

BIDEOJOKOA • AITZIBER BASAURI

Eider Eibarren 'Kokoak' proiektu pertsonalean pauso bat gehiago da *Maeiour, euskaraz marrazten dugu!* bideojokoa. Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Aldundiak lagunduriko proiektua da. *www.kokoak.eus* atarian ikusgai dago. Mugikorretan eta tabletetan erabiltzeko aplikazioak ere sortuko dituzte. Saguganbaran eta Kabi@n aurkeztuko dute lana.

Zeintzuk berrikuntza batu dituzue *Maeiour, euskaraz marrazten dugu!* bideojokoan?

Orain arte, zazpi kokoak eta Io pertsonaia ezagutu ditugu, kokoekin marrazten jarduten duen umea. Oraingoan, Iok lagun berri bi izango ditu, Mae eta Ur. Helburu bat dute hirurek: kokoei euskara irakastea, ez baitakite kokoen hizkuntza. Helburu hori baliatuta, euskarari marrazkiak ipini dizkiogu. Io, Mae eta Ur lagunek eskulanak, marrazkiak... erabiliko dituzte kokoei euskaraz irakasteko. Euskara eta marrazkiak uztartuz, eta oso modu grafiko sinplean, joko txikiak sortu ditugu eta euskararen presentzia erabatekoa da.

Beraz, euskarari lekua ematea izan duzue helburu.

Bai. Euskarak grafikoki pisu handiagoa hartzea gura izan dugu. *Kokojokoa* ere euskaraz da, euskara presente dago testuan eta ahotsetan. Baina, oraingoan, jokoan guztiz txertatuta dago euskara. Kokoek euskara ulertzea da jokoaren helburuetariko bat, eta gu geu koko bihurtzen gara. Hainbat gai (metamorfosia, eztia, ilargiaren sorrera...) jaso dugu bideojokoan, eta gai bakoitzari lotuta hainbat azalpen ematen da, oso era sinplean. Elhuyar Fundazioko Ana Galarragagaz lan egin dugu horretarako. Deskargatu daitezkeen marrazkiak eta material osagarria ere ipiniko ditugu webgunean. Baita Mae, Io eta Ur lagunei buruzko material grafikoa ere, doan hartzeko saretik.

Pozik zaudete emaitzagaz?

Oso pozik. Maek, Iok, eta Ur-ek kuadernotxo bat egin dute, eskulanak eta marrazkiak erabilita hainbat gai landuz: bideojokoaren irudi grafikoa da kuadernotxo hori. Gainera, joko bakoitzak, gai bakoitzak, beste hainbat joko barneratzen du. Helburua zazpi koloreak, zazpi margoak, aurkitzea da, eta hori lortzean sari bat izango dugu: dagokion gai horren zuri-beltzeko izenburuari zein kolore eman erabakitzeko aukera. Maeri, Iori eta Ur-i kuadernoa osatzen lagunduko diegu horrela, gu geu ere koadernotxo horren egile bihurtuta. Digitalki margotzeko aukera dago, eta ordenagailuan gordetzekoa ere.

Kokoen unibertsoa borobildu duzu?

Pertsonaia berriak egongo dira, seguru. Orain lau urtetik hona nire buruan daude, eta apurka-apurka irteten joango dira. Mae, Io eta Ur hor zeudela bagenekien, baina ez zuten itxura fisikorik, jokoan hartu dute forma. Hala ere, bagabiltza gauza berriak pentsatzen, elkarlan batzuk sortu guran... 2023an etorriko dira gauza berriak. Pixkanaka, pertsonaia horien atzean dagoen unibertsoa (izaera, bakoitzaren rolak, interakzioa...) azaleratzen joango gara, eta protagonismoa hartuko dute. Material berria sortzen den neurrian, hortxe egongo dira, kokoekin batera. Baita euren arteko harremana ere.

> ***Denean laguntzen die umeei marrazteak. Lengoaia bat da bere horretan, beharrezkoa da barrukoa ateratzeko***

Nori zuzenduriko produktua da?

Umeei zuzenduta dago. Ni haur literaturatik nator eta hortxe sentitzen naiz erosoen. Baina, berez, marrazkiak gustatzen zaizkion edonorentzat da produktua.

Umeei marrazketa tailerrak emandakoa zara. Zertan laguntzen die umeei marrazteak?

Denean. Marraztea lengoaia bat da bere horretan, eta beharrezkoa dugu barrukoa ateratzeko, kanpokoa barneratzeko, edozertarako. Hezkuntza sisteman lanabes guztiz garrantzitsua da. Eta esparru pertsonalean ere beharrezkoa da, bai marrazketa bai irudi sorkuntza. Bizitzeko modu bat da niretzat. Lantzean behin jarduera batzuk egiten ditut eta haurrekin dudan kontaktu zuzen hori da niretzat garrantzitsuena.

Baduzu beste ezer gaineratzeko?

Aisialdiagaz loturiko proiektuetarako laguntzak daude eta lan asko sortzen da. Badago material bat sortua, baina ez zaio oihartzun nahikorik ematen, eta jendeak ez daki hor daudela. Umeari mugikorra edo tableta ematen diogu, baina ez dugu hautaketarik egiten, ez ditugu euskarazko produktuak bilatzen. Gehiago begiratzera animatu gura nuke jendea, egon badagoelako materiala.

“Anonyme Popular ziurtasunak apur bat lainotu diren garaiotan egindako zintzotasun ekarpena da”

Igor Elortza Aranoa (Durango, 1975) bertsolariak *Anonyme Popular* disko-liburua kaleratu du Rafa Rueda musikariagaz batera. Garai nahasietan sorturiko bertsoak doinu garaikideekin jantzi dituzte

BERTSO MUSIKATUAK • EKAITZ HERRERA

CMYK koloreko azal bat, Anonyme Popular izenburua eta erritmo urbano ugari. Igor Elortzaren alderdirik kosmopolitena ezagutuko ote dugu lan honetan?

Alderdirik gaurkoena, esango nuke. Durango ez dakit herri handia ala hiri txikia den, baina kaletar samarrak izan gara beti. Garai batean, kalean, beste estetika, doinu eta erreferentzia artistiko batzuk zebiltzan. Gaur egun beste batzuk daude, denongana ailegatzen direnak. Eta adintxo bat eduki arren, musikaren mundua beti gustatu izan zait, asko. Nire abiapuntua bertsoak dira, baina gainerakoan egiten dena ere adi jarraitzen dut. Dena dela, zehaztasun batzuk egin gurako nituzke. Azal CMYK, *poppy eta* koloretsua Gotzon Garaizabal diseinatzaile elorriarrak egin du. Lankide ere badut. Disko-liburuko diseinuak Zart kolektiboko Alain Urrutiak egin ditu. Anonyme izena frantsesetik dator, eta Popular izan daiteke ingelesa, gaztelania zein euskara. Izenburua definitzea kostatu egin zitzaidan, beste aukera batzuk ere banituen eta. Baina *flow* moduko bat duela iruditu zitzaidan, zeozer idarokigarria dela. Izenburu aproposa dela iruditzen zait, ni-tik kantatzen dudalako sorta askotan, baina nire egunerokotasun horretatik beste askoren bizipenak ere islatu daitezkeelako. Garai arraro hauetan norbanakoaren eta kolektiboaren arteko tentsiotxo bat badagoelako.

> ***Beharbada lehen nagusi ziren kezka batzuk berrinterpretatzeko balio izan du, euskal gatazkari dagokionez, adibidez***
>
> -

7 Eskale eta Gu ta Gutarrak proiektuen aldean, indibidualagoa, introspektiboagoa al da Anonyme Popular?

Pertsonalagoa da. Introspekzioa egon badago. Izan ere, honen guztiaren sorburua izurrian dago, neurri handi batean. Orokorrean, garai eta giro nahiko indibidualista honetan, gu-ak urtu diren garaiotan, pandemia giro isolatuan idatzitako sortak dira. Dena dela, lehenagotik nituen kezka batzuk ere badaude. Izurriaren aurreko eta geroko bertso sortak daude. Formulazio aldetik, oso nitik irtendakoak dira. Ziurtasunak apur bat lainotu diren garaiotan egindako zintzotasun ekarpena da. Bidean kideak batu arren, konplizeak batu arren, lan handia eskatu didan proiektua da. Rafa Rueda izan da konplize nagusia. Lan handia egin du alderdi musikalean. Ekoizpen lanak Jose Lastra teknikariak egin ditu, eta Zart kolektiboak egin ditu disko-liburua kaleratzeko lanak. Azpeitiko Kulturaz Kooperatibako kide diren Dapatistak taldekoengana ere jo dut. Zabalkundeari begira, Ikus-entzunezko bertso berriak landu genituen. Youtube kanal bakarrean entzun, ikusi eta irakurri daitezke lanak. Zuzenekoei begira, hirugarren musikari bat izango dugu, Alvaro Olaetxea perkusionista. Jose Lastra teknikari lanetan egongo da eta Gaizka Izagirre berriztarra soinu eta proiekzio lanetan. Gidoia harilkatzeko lanak Oier Zuñiga antzerki zuzendariak egingo ditu.

> ***Lehenengo emanaldia Azpeitiko Soreasun egingo dugu, urtarrilaren 29an; Elorrioko Arriolan, otsailaren 10ean***
>
> -

Sortzaile modura, zelakoa izan da zure sortze lana konfiguratu duen barne testuingurua? Zelako Igor Elortza egon da sortze lanean?

Igor Elortza zalantzati, zaurgarri samar eta bizinahi handikoa. Adinak ere izango du zerikusia honetan. Gauza batzuk belaunaldiari loturikoak direla esango nuke. Beharbada, lehen nagusi ziren kezka batzuk berrinterpretatzeko balio izan du. Euskal gatazkari dagokionez, adibidez. Edo garai batean hain presente ez zeuden konfliktoak oso presente daude lanean. Feminismoaren olatuak, zorionez, galdera ikur berriak ekarri ditu askoren bizitzara. Gure egunerokotasuna errebisatzeko galderak. Badago introspekzio puntu bat, neuretik, zintzotasunetik hasita.

Musikari dagokionez, zelakoa izan da sortze prozesua?

Bertso sorta kopuru bat idatzita nuenean, ingurukoekin berba egin nuen, konfiantzazko sortzaileekin, aurrera egiteak merezi ote zuen kontrastatzeko. Batzuek esaten zidaten gehiago idatzita liburu bat kaleratu nezakeela. Baina beharbada lehendik ere antzeko lanak egin ditudanez, kantuan ikusten nuen neure burua. Iruditzen zait bertsoak lo daudela paperean, eta iratzarri egin behar direla, mugiarazi. Eta hori musikak eta kantuak egiten dute. Nogaz egin nezakeen hori? Rafa Rueda etorri zitzaidan burura. Lagunak gara eta aurretik elkarrekin lan egindakoak ere bai. Berak elektronika landu du azkenaldian, pop musika ere bai, eta banuen hortik jotzeko intuizio bat. Azkenaldian entzuten ibili naizena beragaz partekatu eta horrela joan gara apurka-apurka lantzen. Pandemiak aizkorakada bat ekarri du, baina aukera bat sortu du gauza berriak egiteko, bertsoak bestelako estetika batzuekin janzteko. Rafa aske sentitu da lanerako, eta bidea gozatu dugulakoan nago.

Zuzenekoak prestatzen zabiltzate. Zer ikusiko dugu?

Azaroan zehar arlo musikala landu dugu. Orain hari kontzeptuala, gidoia eta eszenaratzea landuko ditugu. Ni-tik idatzitako hori emanaldi bakoitzera doan jendeagaz partekatu eta gu bat sortzeko modua topatzea da ideia. Hori janzteko, off ahotsak, mugimenduak, bideo proiekzioak, tokian tokiko sorta bat edo beste, bertsioren bat, eta giro edo atmosfera bat sortzeko argiztapena izango ditugu.

Non eskuratu daiteke *Anonyme Popular* disko-liburua?

Zart kolektiboaren standean egongo da eta ohiko liburu-dendetan ere ipiniko dugu salgai. Adibidez, Durangoko Hitzen badago jada. *Igor.eus* atarian ere eskuratu daiteke eta zuzeneko emanaldietan ere egongo da salgai. Zuzenekoak direla eta, eskualdean Elorrioko Arriolan egongo gara oraingoz, otsailaren 10ean. Dena dela, lehenengo emanaldia urtarrilaren 29an egingo dugu, Azpeitiko Soreasun. Horrez gainera, Zarautzen, Iruñean, Bilbon, Villabonan eta Amurrion antolatu ditugu otsail-martxorako zuzenekoak. Gehiago lotzen ere bagabiltza. Durangon ere egin gura dugu, maiatzean, eta Lapurdira ere ailegatu gura nuke. Baten batek emanaldiren bat antolatu gura balu, Lankura jo dezake.

· OSTALARITZA GIDA ·

MIKELDI

Kalebarria 7,
Durango

Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera haundia giro ezin hobean.

ARRIPU

Txibitena 9,
Durango

Tel.: 602 387 814

Gure berezitasuna tortillak dira, 16 zapore ditugu aukeratzeko eta denak primerako osagaiekin egindakoak, noski.

IBAIZABAL

Ibaizabal Etxetaldea,
2B Durango

Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

ABARKETERUENA

Iturritxo 6 - Txanporta plaza, Abadiño

Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

XIBERU

Zezilia Gallartzagoitia 9,
Zornotza

Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

GAUARGI

Dantzari 4 behea,
Iurreta

Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

AI AMA

Joxe Miel barandiaran
2 behea, Durango

Tel.: 946 232 240

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera.
Gozo eta osasuntsu gainera!



ZERO

Andra Mari 6,
Durango

Tel.: 946 812 222

Zatoz eta gozatu kafe ona gure askotariko pintxoak, asteburuetako afariak, eta gure mojito eta gin-tonic bereziak.

· OSTALARITZA GIDA ·

POL-POL

Barrenkale 19 (Udaletxeko plaza), Durango

Tel.: 946 202 969

Gosariak, pintxoak, errazioak eta ogitartekoak. Terraza itxia, berogailuarekin. Etorri eta dastatu gure kafeak eta konbinatuak.

HERRIA

Askatasun etorbidea 28, Durango

Tel.: 946 810 513

Astelehenetik barikura goizeko 6ettik aurrera zabalik, zapatuetan 08:00etatik aurrera eta domeketan 08:30etik aurrera.
Pintxoak eta gosariak.
Asteburuetan rabak.
Giro polita! Zatoz!

RUGBY

Goienkale 18, Durango

Tel.: 946 200 007

Azoka egunetan taloak hemen!

MESOI BARRIA

Kalebarria 1, Durango

Tel.: 946 030 341

Etorri gure eguneko menua eta askotariko pintxo eta errazioak dastatzera!

SORGIN

Ibaizabal 4C, Durango

Tel.: 678 586 143

Terraza berria, pintxo berriak, txibierroak, janari minak, errazioak, musika zuzenean. Zatoz eta goza gaitzazu!

BOTAFUMEIRO

Olleria 10, Durango

Tel.: 946 216 036

Galizia zati bat Durangoko bihotzean.
Galiziako gastronomia 1997tik.
Olagarroa, barbakoa eta haragia plantxan.

Durangaldean ostalaritzarekin zerikusia duen negoziorik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON.

informazio gehiago: 946 217 902 telefono zenbakian

"Historiaren tintontzian geratu zen Elurzuriren bertsio bat dela pentsatzea gustatzen zait"

Ander Berrojalbizek 'Elurzuriren hiru heriotzak' ipuina kaleratu du, ipuin klasiko eta ezagunaren bertsio berri bat

Ander Berrojalbiz Etxebarria
'Elurzuriren hiru heriotzak' ipuina idatzi du
DURANGO | **1983**

LITERATURA • JOSEBA DERTEANO

Grimm anaien jatorrizko ezkuizkribuetatik abiatu, pasarteak orduko sasoiko datu historikoen galbahetik pasatu eta ipuin klasiko honen bertsio berri bat ondu du Ander Berrojalbizek 'Elurzuriren hiru heriotzak' ipuinean. Gaztelaniaz idatzia, euskarazko itzulpena Joseba Sarrionandiarena da. Azokan, euskarazko ipuina Pamiela argitaletxearen standean egongo da; gaztelaniazkoa Durangaldeko sortzaileen standean.

Joseba Sarrionandia aurretik ezagutzen zenuen?

Bai. Aurretik beragaz elkarlanean aritu naiz *Herejeen alaba* liburuan. Orduan euskaraz idatzi nuen, baina oraingoak kutsu literarioa du eta nirea baino hizkuntza erabilera landuagoa bilatu gura nuen. Berari planteatu nion eta baietz esan zidan.

Nondik dator lan berri honen ideia?

Nire aurreko liburua, *Akelarre*, Euskal Herrian gorde den sorginkeria kasurik zaharrenaren gaineko ikerketa bat da. Prozesu horren transkripzioa argitaratu nuen lehenengoz, eta horren gaineko ikerketa ere bai. Bertan, Euskal Herriko nahiz Europako sorginkeriaren inguruko hainbat ezaugarri lehenengoz agertzen dira. Esaterako, salatu dituzten gizon batek eta emakume batek torturapean onartzen dute pozoituriko sagarrak banatu dituztela. Eta, jakina, hori irakurrita Elurzuriren ipuineko pozoituriko sagarraren pasartea datorkizu berehala burura. Ipuina berriro irakurri nuen eta konturatu nintzen Grimm anaiek argitaratutakoak ez zetozela bat Erdi Aroko historia iturriekin; labur esanda, Grimm anaiek nahastu egiten dituzte magiaren eta pozoien mundua. Kontu horrek susmo bat sortu zidan. Jakin nuen Elurzuriren ipuina argitaratu baino lehenagoko euren eskuizkribu bi zeudela. Horiek irakurri eta nire susmoa konfirmatu nuen. Eskuizkribu horietan dena Erdi Aroko magiaren eta pozoien munduaren barruko logikan dago. "Hemen badago materiala", pentsatu nuen. Ipuinean agertzen diren beste ezaugarri batzuetako iturri historikoak ikertu nituen. Aurkituriko guztiak ipuinari zentzu berri bat ematen ziola ikusi nuen. Hori guzti hori kontuan hartu dut liburuan. Ez dut ezer asmatu. Grimm anaien eskuizkribuak eta iturri historikoak erabili ditut. Historiaren tintontzian geratu zen bertsio bat dela pentsatzea gustatzen zait.

> ***Ikertu eta aurkituriko guztiak ipuinari zentzu berri bat ematen ziola ikusi nuen***

Kontatzen den horretan eta kontatzeko moduan zer desberdintasun dago ezagutzen dugun bertsiotik?

Kontatzen dudanari dagokionez, Grimm anaien eskuizkribu haietatik oso gertu dago. Detaile txiki batzuk zuzendu behar ziren, eta, zelan edo halan, beste logika bat ere badu. Esaterako, geroragoko bertsioetan aldatu zuten arren, Grimm anaien eskuizkribu haietan zazpi nanoak ez ziren Elurzuriren laguntzaileak bakarrik, epaileak ere baziren. Nanoek Elurzuriri abisatu egiten diote, eta abisu bakoitza epaiketa bat dela ikusten da. Hau da, gertatzen zaizkion gauzen erruaren parte bat Elurzurirengan jausten da. Ez da alde bat guztiz maltzurra eta bestea erabat inozentea. Elurzurik baditu erne egoteko motiboak, baina hiru bider jausten da engainuan. Horrek guztiz aldatzen du ipuinaren zentzua. Kontatzeko moduari dagokionez, ipuinean zehar testu historikoak tartekatzen ditut, testuinguru bat emateko. Testuek zentzu berri hori indartu gura dute.

Zuriaren eta beltzaren muturrak agertzen dira, ala grisetik gehiago du muturretatik baino?

Nire helburua ez da moraleja egoki bat uztea. Ez diot nire bertsioak moraleja hobea duenik. Elurzurik ez du merezi gertatzen zaiona, inork ere ez du hori merezi. Baina ipuinaren logikaren barruan badu bere buruaren ardura hartzeko modua, eta ez du hartzen. Azkenean, ipuinean beste zeozer ere bazegoela susmatzen nuen. Horren bila joan naiz eta aurkitu dudana erakutsi dut. Honako hau erakustea interesatzen zait: ipuina guk gaur egun galduta ditugun logiketan oinarrituta dagoela. Hau da, beste garai eta mundu ikuskera batetik datorren ipuina dela. Beraz, asmoa ez da moraleja berri bat plazaratzea, garai haietako mundu ikuskerara begiratzeko leiho bat zabaltzea baino.

'Elurzuriren hiru heriotzak' izenburuak amaiera tragikoa iradokitzen du.

Tira, ipuinean ez dago printzerik. Hori aurreratu dezaket. Hortik aurrerakoa irakurleak deskubritu beharko du.

Umeentzako ala helduentzako ipuina da?

Helduengan pentsatuta idatzi dut, baina 11 urteko gure alabak irakurri du eta gustatu zaio. Ez dago ume batek irakurri edo entzun ezin dezakeen ezer, baina heldutasunetik etekin gehiago atera dakiokeela uste dut.

“Kontakizun baten arrasto edo keinuak biltzeko saiakera egin dut 'Keinura Itzuli' liburuan”

Elena Olave idazle durangarrak abenduaren 8an aurkeztuko du 'Keinura itzuli' liburua, 18:00etan, Ahotsenean

Elena Olave Duñabeitia
Idazlea
DURANGO | **1997**

POESIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elena Olave idazle durangarrak bere bigarren lana argitaratu berri du. 2019an 'Zeldak. Gorputz honetatik' lana kaleratu zuen, eta orain 'Keinura itzuli' poema liburua publikatu du. Durangarraren azken lan honek 57 poema jasotzen ditu eta Susa argitaletxeagaz kaleratu du. Olavek abenduaren 8an aurkeztuko du 'Keinura itzuli', 18:00etan, Ahotsenean.

'Keinura itzuli' lana kalean da jada. Zer moduz zaude?

Egia esan, pozik, oso pozik. Gainera, prozesu bati amaiera eman ahal izan diot eta alde horretatik lasai nago. Baina, egia esan, beste alde batetik urduri ere banago. Azken batean, lana argitaratzeak zelanbaiteko esposizio publiko bat eragiten du, eta horrek urduritu egiten nau.

Jaso duzu ingurukoen feedback-ik lana dela eta? Irakurleen iritziak urduritu egiten zaitu?

Ingurukoena ez dut jaso oraindino. Liburua argitaratu aurretik, idazten duten beste lagun batzuei pasatu nien irakurtzeko. Euren iritziak eragina izan zuen azken emaitzan, eta liburua argitaratzen lagundu didate. Asko eskertzen dut hori.

Jendeak liburua irakurtzeak baino gehiago, argitaratzeak berak atzetik dakarren guztiak urduritzen nau. Hau da, plaza publikoan egoteak dezente gehiago urduritzen nau.

Lanari dagokionez, zer aurkituko du 'Keinura itzuli' liburua erosten duenak?

Poema ezberdinak dira. Aurkezpenean aipatu nuen lez, istorio edo kontakizun baten arrasto edo keinuak biltzeko saiakera egin dut. Liburuan, zelanbait, istorio bat eta istorio hori kontatzen duen ahots edo eskuaren pentsamendu eta hausnarketak tartekatzen dira. Hori guzti hori formatu poetiko batean. Hala ere, ez da istorio oso bat, arrasto modukoak dira.

> ***Leire Vargasegaz batera egongo naiz Ahotseneako solasaldian eta hori oso berezia da niretzat***

Liburua ez duzu ataletan banatu.

Hasieran liburua atal bitan banatzea pentsatu nuen. Alde batetik, kontakizuna edo istorioa izango zena. Eta, bestetik, istorio horren edo idazketaren inguruko gogoeta bat. Baina edizio prozesuan zehar, Leire L. Ziluaga editoreagaz batera, pentsatu genuen zentzu handiagoa zuela kontakizuna eta idazketari buruzko idatziak

> ***'Keinura Itzuli' poema liburua idazketa prozesura itzuli izanaren ondorio bat da zentzu batean***

tartekatzea. Azken batean, bizitza eta testua bera ere batera edo nahastuta interpretatzen nituelako, zelanbait esateko.

Pertsonalki zer suposatzen du zuretzat lan honek?

Keinura Itzuli poema liburua idazketa prozesura itzuli izanaren ondorio bat da zentzu batean. Beste alde batetik, ikerketa eta lan prozesu baten emaitza ere badela esango nuke.

Zein denbora tartetan idatzi duzu liburua?

Liburuan agertzen diren poemak 2020ko udan idazten hasi nintzen. 2020tik 2022ra bitartean idatzitakoak dira, baina, egia esan, azken urte honetan eman dizkiot zentzua eta egitura liburuari.

Amaitzeko, zure lana Durangoko Azokan egongo da eskuragarri, eta, gainera, Ahotsenean aurkeztuko duzu. Zer suposatzen du horrek zuretzat?

Alde batetik, pozik nago. Azken batean, lagunekin eta ingurukoekin partekatu ahal izango dut, modu batera edo bestera, liburuak suposatzen duen esperientzia. Gainera, Leire Vargasegaz batera egongo naiz Ahotseneako solasaldian eta hori oso berezia da niretzat. Leire laguna dut eta, literatur kidea ere badenez, seguru nago oso esperientzia polita izango dela.

Aurten Bizkaiko postuak nagusituko dira Euskal Dendan, eta pandemia aurreko bisitari kopuruetara gerturatzea dute helburu

Pandemiaren aurretik, 34.000 bisitari izan zituzten, eta iaz, ostera, 16.000 bisitari. Apurka zenbaki hori handitzea dute helburu antolatzaileek

EUSKAL DENDA • JOSEBA DERTEANO

Euskal artisauentzako ekitaldirik garrantzitsuenak hogeita seigarrenez zabalduko du Durangoko merkatuko atea, abenduaren 7tik 11ra. Urtero lez, Euskal Herriko Artisautza Tradizionala Sustatzeko Arbaso elkarteak antolatu du ekimena.

Aurtengo helburuetariko bat pandemiaren aurreko bisita kopuruetara gerturatzea izango da. Azokaren harira Durangora etorritako bisitarientzat Merkatu Plaza txiki geratzen zen batzuetan. 34.000 bisitari jaso zituzten urtean jo zuten goia. Baina urte biko etenak bere ondorioak izan ditu eta iaz 16.000 bisitari inguru izan zituzten. Horregaitik, apurka-apurka pandemia aurreko datuetara hurreratzea dute helburu eta ildo horretatik lan egingo dute, Euskal Dendako arduradunen esanetan.

Bizkaiak ordezkaririk gehien

Aurten 51 artisautza enpresa etorriko dira, iaz baino bi gutxiago. Lurraldeak kontuan hartuta, beste urte batez Bizkaiak izango du ordezkaririk gehien, 31 artisaugaz, iaz baino bost gehiago. Gipuzkoatik 9 etorriko dira, Nafarroatik 6, Arabatik 4 eta Lapurditik 1.

Eskualdeko lau postu

Durangaldetik lau artisauk parte hartuko dute. Eneko Unzaluk aurten ere ez du hutsik egingo, eta berak egindako bitxiak ikusi eta erosi ahalko dira. Egurra lantzen duen Felix Larrañaga ere bertan egongo da. 2018an Euskal Dendako standik onenaren saria irabazi zuen berriztarrak. Elorrioko Gorakat dendakoen poltsek eta motxilek beteko dute beste stand bat. Aurten, bosgarren parte hartzea izango dute. Restaurarte zaharberritze tailerrekoak ere hainbat bider egon dira Euskal Dendan, eta 2010ean standik onenaren saria jaso zuten.

Postuak sektoreka

Euskal Dendan posturik gehien izango duen sektorea ehungintza da, bederatzigaz. Kosmetikak, bitxigintzak, imitaziozko bitxigintzak eta nekazaritzako elikagaiek ere espazio nabarmena izango dute, bosna postugaz. Baina aurtengo bereizgarrietariko bat da sektore nagusietan sailkatu ezin daitekeen postu asko egongo dela: lore sikuak, landare-zuntzak, serigrafia, jostailuak, euskal kirola, macrame teknika... Euskal Denda bisitatzen duenak gustu eta kolore guztietako postuak aurkituko ditu. Gainera, euretariko batzuk lehenengoz etorriko dira. Esaterako, Bilboko Tokyo Story zaharberritze dendakoak eta Ilzarbeko (Nafarroa) Kurunkun txotxongilo egileak.

Aurten 51 artisautza enpresa etorriko dira Euskal Dendara, iaz baino bi gutxiago

Elorrioko Gorakat-ek jarriko du Euskal Dendako postuetako bat.

Ordutegia

Euskal Denda abenduaren 7tik 11ra egongo da zabalik. Goizetan, 11:00etatik 14:30era zabalduko dute; eta arratsaldeetan, 16:30etik 21:00etara. Azken egunean, abenduaren 11n, 20:00ak arte bisitatu ahalko da arratsaldez.

“Bihotza hunkitzen dizun txotxongilo hori da politena; ez dago bat bestea baino hoberik”

Izaskun Robledok eta Danel Iñurrietak orain 15 bat urte sortu zuten Kurunkun. Aurten lehenengoz bisitatuko dute Durangoko Euskal Denda, askotariko txotxongiloekin

ARTISAUTZA • J.D.

Kurunkun-eko txotxongiloek lehenengoz bisitatuko dute Euskal Denda. Euren emozioak eta sentsazioak partekatuko dituen arima bikiaren bila etorriko dira, Kurunkan-eko txotxongiloak pertsonak lakoak direlako; ez daude berdinak diren bi.

Noiz eta zelan sortu zen Kurunkun?

Gu biok haur hezitzaile aritu ginen urte askoan, haurreskola batean nahiz kaleko hezitzaile. Ikusi genuen bitartekariak oso erreminta lagungarriak direla esparru askotan binkulazioak sortzeko: familien artean, terapietan… Hau da, sormenez beteriko baliabideak eta gordetako informazioa kanpora ateratzeko baliagarriak direla. Umeek barruan daukaten potentzial guztia txotxongiloaren bidez atera dezakete, haiei hitza jarriz, jolastuz… Baina ez da umeen kasuan bakarrik. Nagusiekin ere berdin. Esaterako, gaitasun kognitiboa guztiz garatuta ez duten pertsonekin, txotxongiloak adierazkorrak direlako eta alderdi sentsorialarekin asko jokatzen delako.

Seme-alabak dituzten familien kasuan, txotxongiloen bidezko komunikazioa alde bitarikoa izan daiteke. Gurasoek ere erabili ditzakete euren seme-alabengana heltzeko.

Bai, jakina. Askotan galdetzen didate: "Txotxongiloak zein adinetarako dira?" Nire ustez, 0tik 125 urtera artekoentzat dira, ez dago adinik. Aldatzen dena erabilera da. Irakasle eta terapeuta askok erosten dizkigute. Modu askotan erabiltzen dituzte. Esaterako, gelako pertsonaia berezi bat bezala. Zerbait kontatu behar denean txotxongiloa ateratzen dute. Orduan, kontalaria ez da jada irakaslea, baizik bizia eman dioten txotxongilo bat, izaera jakin bat duena.

Zer ezaugarri hartzen dituzue kontuan txotxongiloak sortzerako orduan?

Txotxongilo mota asko dugu eta sarritan galdetzen didate: "Zein da politena?" Nire ustez, ez dago bat bestea baino hoberik. Bihotza hunkitzen dizun txotxongilo hori da politena. Beraz, horixe da gure erronka, hunkigarriak izan daitezkeen pertsonaiak sortzea. Batzuek beldurraren emozioa mugituko dute; otsoak, adibidez. Beste batzuek emozio samuarragoak; txakur edo katu txotxongiloek, adibidez. Batera zein bestera, adierazkorrak izan behar dira. Ikusi izan ditut ondo eginda egon arren transmititzen ez duten txontxongiloak, eta guri zerbait transmititu dezaten gustatzen zaigu.

Txotxongiloaren eta umearen artean lotura berezia sortzen da.

Bai, lotura bat sortzen da. Gurasoek galdetzen didatenean ea zein txontxongilo erosiko duten seme-alabentzat, lehenengo jakin behar duguna da nork erabiliko duen txotxongiloa. Umeak bere kontura jolasteko bada, orduan bai, orduan umearen interesari begiratuko diogu. Baina gurasoak seme-alabekin batera arituko badira, orduan gurasoek eurek arakatu behar dute zein txotxongilok mugitzen dieten barrua, euren emozioa delako jolasean jarriko dena. Txotxongiloarekin sortutako lotura hori da jolasean jarriko dena eta umea maiteminduko duena.

Kurunkun sortu zenetik hona, zenbat txontxongilo desberdin sortu dituzue?

Aniztasuna hain da handia ezin dudala kopuru bat eman. Modelo batzuk ditugu eta horiei ezaugarri desberdinak jartzen dizkiegu. Sortzen ari garenean erabakitzen dugu txotxongilo bati soinekoa jarri edo zerbait makarragoa egin, zer kolore erabili, otsoari zer ile mota jarri, begiak elkartuago edo banatuago jarri… Horrek guztiak asko aldatzen du txotxongilo bakoitzaren esentzia. Azkenean, barietate bakoitza pertsonaia berri bat bilakatzen da. Askotan detaileak dira jendea txontxongilo batera edo bestera eramaten dutenak.

Azoketan umeak txotxongiloei liluratuta begira-begira ikusten dituzuenean, sentsazio asebetegarria da zuentzat?

Bai, sentzasio hori izugarria da. Umeen begiek distira egiten dute eta harrituta geratzen dira. Ume batek txotxongilo batekin izugarri konektatzen duenean oso polita da. Txotxongiloari mugimendua ematea gustatzen zaigu. Hartzen dugu txontxongiloa eta bat-batean umeari begiratzen dio, eta nolabaiteko binkulazio hori hasten da. Honako honetaz konturatu gara askotan: umea txotxongilo batekin maiteminduta geratzen da; gurasoekin azoka guztia ikustera joaten dira eta, berriro itzultzen direnean, aurreko txotxongilo harek sentiarazitako sentsazio hori bilatzen dute berriro, ez beste bat.

> ***Durangon txotxongilo berri bat estreinatuko dugu. Kono egitura du eta besoekin, buruarekin… janzten da***

Zer nobedade ekarriko duzue Euskal Dendara?

Beste txotxongilo mota batzuk egiten ere bagabiltza. Durangon berri bat estreinatuko dugu. Kono egitura du eta besoekin, buruarekin… janzten da. Konoak makila bat du barruan, eta makila luzatzean txontxongiloa konotik irteten da. Makilari beherantz tiratzean, ezkutatu egiten da. Bestelako txotxongiloak ere eramango ditugu Durangoko Euskal Dendara: hatzetako txotxongiloak eta eskuetakoak, besteak beste. Denerik erakutsiko dugu.

Beste ezer gehitu gura duzu?

Orain pare bat urte oihal ekologikoekin lanean hasi ginen eta Euskal Dendara begira oihal ekologikoen aldeko apustua egingo dugu: modelo gehiago, kolore gehiago… Ekologikora bideratzen joateko apustu handia egiten ari gara.

"80ko hamarkadaz geroztik komikien arorik oparoenean gaude, kantitatez eta kalitatez"

Unai Iturriagak hiru lan izango ditu Durangoko Azokako erakusmahaietan: *Ni ez naiz Mikel Laboa* eta *Haur Besoetakoa: Itsasoan urak handi* ale berriak, eta *Udaberririk ankerrena* komikiaren berrargitalpena hamar urteren ondoren

KOMIKIGINTZA • IGOR GALARZA

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza durangarrak ez du lan faltarik izan azken urteotan. Lan berri bi aurkeztuko ditu Azokan: *Ni ez naiz Mikel Laboa* eta *Haur Besoetakoa*ren hirugarren bilduma: *Itsasoan urak handi*. Horrez gainera, *Udaberririk ankerrena* komikiaren berrargitalpena ere egin du, Alex Sanvigaz batera. Hiru komikiak egongo dira Azokan.

Nondik dator *Ni ez naiz Mikel Laboa* sortzeko ideia?

EHUko Mikel Laboa Katedra nigaz hartu-emanetan ipini zen, komiki bat egin zitekeela otu zitzaielako. Niri ederto iruditu zitzaidan, baina banekien ezin nuela bakarrik egin. Joseba Larretxeagaz hartu-emanetan ipini nintzen, marrazkiak egin zitzan, eta gidoia neuk bakarrik egitea ere lartxo iruditu zitzaidan, Laboaren moduko figura bati heltzeko beldurragaitik batez ere. Beraz, Harkaitz Can aspalditik ezagutzen dut eta nigaz kolaboratzeko eskatu nion. Harkaitzek, idazlea eta gidoilaria izanik, beste begirada bat izan zezakeen, nik ez daukadana. Orain dela bost urte ipini ginen hartu-emanetan, eta orain dela lau hasi ginen lanagaz. Denok ere beste lan batzuk izan ditugu eta apurka-apurka joan gara bidea egiten. Beharbada denbora tarte luze horrek ekarri du komikia den modukoa izatea. Normalean, komikiak epe baten barruan egin behar izaten dira, eta, gure kasuan, horrela ez izateak obra forma hartzen ikusten joatea ekarri du. Konplexua genuen Laboarengana hurbiltzeko, baina lana horrela egiteak pauso bakoitzean "ausartagoak" izaten baimendu digula esango nuke. Gainera, Josebak egindako zirriborroak ikusten genituen eta elkarri esaten genion: "Flipatzen ari gara, baina funtzionatzen du".

Lan egiteko era desberdina izan da. Zelan hurbildu zarete Laboarengana?

Mikel Laboak ezaugarri bi zituen: ausardia, hasi tradiziotik eta esperimentaziora; eta umorea, bere komunikazioak eta inkomunikazioak, nahiz eta gauza serioetan ere bazegoen hori. Beraz, elementu horietatik heldu genion Laboari. Badu surrealismotik, baina baita biografiatik ere. Baina biografiarako badago Marisol Bastidak, bere alargunak, eginiko liburua. Gu liburu horretatik elikatu gara.

Irakurleek, gazteek esaterako, Mikel Laboa ezagutu behar dute liburuaz gozatzeko?

Ez dago ezagutu beharrik. Euskarazkoa ez den komiki bat hartzen dugunean ez dugu galdera hori egiten. Mikel Laboa ezagutzen ez duen edonork irakurtzeko moduko liburua izatea izan da gure asmoa. Ezagutzen baduzu, elementu gehiago topatzen joango zara. Laboa ezagutzen ez duenak bere beldurrak dituen musikari bat aurkituko du, bere bitxikeriak eta bere umorea dituen musikaria, eta liburua irakurri eta gero Laboa gehiago ezagutzeko gogoa izatea izango litzateke ideia. Laboa ezagutzen duenak komiki honetan haren izpiritu ausart, libre eta umoretsua aurkitzea gura dugu. Ez nuke esango gazteentzako komikia denik, baina helduentzakoa ere ez.

Bestalde, 'Haur Besoetakoa' komikian, pertsonaiek lehenengoz irteten dute hiritik.

Bigarren liburuko amaieran, haurrak Aimez [komikian aita-amak izendatzeko erabiltzen den izena] fidatzen dira. Akats handia. Orduan, kontzentrazio-esparru batean sartzea edo ihes egitea aukeratu behar zuten, eta bigarrena aukeratu zuten. Album honetan, ihesaldian aurkitzen doazen mundu desberdinak agertzen dira. Ihes egiten dute pentsatuz askatasuna lortuko dutela, baina askatasuna garesti dago gero! Hori da apur bat oinarrian dagoena.

Hiritik irteteak sorkuntzarako ateak zabaltzea ekarri dizue?

Bai. Gainera, ni erraz kateatzen naiz; Laboagaz ere kateatu nintzen. Album bi istorio asko dira, eta istorio bakoitzak 6-8 orrialde ditu. Istorio horietan beti leku berean zeuden, baina oraingoan guk gura izan dugun lekura mugitu ditugu, gura izan dugun modura, eta idazterako orduan eta marrazterako orduan ere askatasun eremu bat zabaldu zaigu.

Laguntzen dizu Unai helduak kritikatu edo azaldu gura lukeena Unai umearen erara egiten?

Umeak ematen digun begiratokiak helduon kontraesanak agertzeko aukera ematen digu. Jakina, ni ere heldua naiz, eta, beraz, nire kontraesanak ere ikusi ditzaket. Baina nik komikiko umeei egozten diedan begirada heldu batena da. Baina polita da, ume batek planteatzen dizkizun kontraesanak erantzungaitzak dira. Helduok eztabaidatu egiten dugu, gure argumentuak ematen ditugu. Baina umeek ispilu efektua egiten dute. Behin ume batek zure kontraesanean bete-betean jotzen duenean ez dago atzera bueltarik. Ideia apur bat hortik doa, baina tira, umorez. Parodikoa da.

Bestalde, 'Udaberririk ankerrena' berrargitaratu duzue, hamar urteren ondoren.

Bai, Durangoko bonbardaketaren 85. urteurrenean gaude hain zuzen ere. Ez zegoen eskuragai orain arte, eta Alexentzat eta biontzat pena zen salgai ez egotea. Zoritxarrez, gertakari horri buruz dagoen euskarazko komiki bakarra da.

> ***Mikel Laboa ezagutzen ez duen edonork irakurtzeko moduko liburua izatea izan da gure asmoa***

Eta pena da ikastetxeetan, Gerediaga Elkarteak eta Jon Irazabalek egindako ikerketez gainera, ez dagoelako beste materialik gaiari buruz. Durango 1936 elkarteari eta Durangoko Udalari eskerrak beste bizitza bat eman diogu.

Osasuntsu dago komigintza?

Bai, azken urteotan loraldi bat dago, hainbat motibogaitik. Batetik, Ikastolen Elkarteak Xabiroik hainbeste urtean egin duen lana egiten duelako, eta horrek ekarri du idazle eta marrazkilari askok elkar ezagutzea eta trebatzea; eta, bestetik, komikiak ospea berreskuratu duelako 'nobela grafikoa' izenpean. Aurten dozenaka ale argitaratuko dira euskaraz. Hori ikaragarria da. Esango nuke 80ko hamarkadaz geroztik komikien arorik oparoenean gaudela, kantitatez eta kalitatez.

Zelan bizi dituzu Azoka aurreko egunak?

Gogotsu nago. Hiru gauza oso desberdin dira eta horrela ikusita pentsa dezakezu "Hara! Zenbat gauza egin ditudan eta aldi berean!", baina, berez, bat berrargitalpen bat da eta beste biak lau urtean egiten joan naizen lanak. Xabiroiren postuan egoten gara urtero eta polita izaten da. Beharbada Mikel Laboaren liburua gehiago salduko da, baina Xabiroik erosle kopuru nahiko finkoa du. Gainera, Alex standean marrazten hasten denean, erleak eztira legez etortzen da jendea. Guretzat oso egun politak dira, gutxitan jasotzen baitugu feedback-a.

Insömnia.

"'Barne Mundua' disko kontzeptual bat da, abesti guztiek konexio bat dute; lanak mezu bat du atzean, istorio bat"

Pandemia betean sortu zen Insömnia taldeak bere bigarren diskoa kaleratu du, 'Barne Mundua'. Oier Palomo gitarristak erantzun ditu galderak

MUSIKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

'Barne mundua' lana kalean dago. Zer moduz zaudete?

Oso pozik, baina nekatuta. Udan ezin izan genuen lanik egin eta hiru hilabetean egin behar izan dugu diskoa. Irailetik hona hamabi abestiko lana grabatu dugu.

Diskoa Azokarako kaleratzea garrantzitsua zen zuentzat?

Durangoko talde askok ez dute presa handirik izaten lanak Azokarako ateratzeko. Euskal Herriko talderik gehienak Azokara begira egoten dira, baina bertakoak sarritan ez. Eta ematen du hemen ez dagoela talderik, baina hemen talde asko eta onak ditugu. Guretzat Azoka oso onuragarria da, eta lana egun horietarako kaleratzea oso berezia.

Zelako diskoa izango da?

Lehenengo diskoa grabatzerakoan, Amaiurrek (abeslaria eta gitarrista) eta biok ez genuen elkar ondo ezagutzen. Ni rock mundutik nentorren eta Amaiurri popa gustatzen zitzaion gehiago, musika komertziala. Orduan, lehenengo diskoa grabatzerakoan bigundu egin nintzen apur bat, zelanbait esatearren, eta oso disko alai eta lasaia kaleratu genuen. Baina bigarren disko hau desberdina da. Amaiurrek konposatu ditu abestiak, eta gero taldekide denon artean landu ditugu. Beraz, diskoa askoz ere landuago geratu zaigula esan daiteke. Disko kontzeptual bat da, abesti guztiek konexio bat dute. Lanak mezu bat du atzean, istorio bat. Egia esan, diskoan denerik dago: abesti elektroniko bat, pare bat abesti nahiko rockeroak, rumba bat, abesti akustiko bat... Barietatea dago, baina, orokorrean, pop-rock estetikari jarraitu diogu.

> ***Guretzat Durangoko Azoka oso onuragarria da, eta lana Azoka bueltarako kaleratzea oso berezia***
>
> -

Zuena pandemia betean sorturiko taldea da. Denbora gutxian pauso handiak ematen zabiltzate.

Urte eta erdi pasatu da taldea sortu genuenetik, eta denbora tarte horretan gauza asko egin dugu, bai. Hala ere, lehenengo diskoaren ondoren ez genuen kontzertu askorik eman. Murrizketak zeuden, aforo mugatuak... dena txarto zegoen. Horregaitik, lehenengo diskotik bigarrenera bitartean EP bat grabatzea erabaki genuen. Zenbait kolaboratzaile izan genuen, tartean Xabi Solano.

Orain kontzertuak ematen zentratuko zarete?

Behin diskoa kalean dagoela, hori lau haizetara zabaltzen zentratuko gara. Eta, zelan ez, kontzertuak lotzen. Horretan gabiltza eta ea urte hasieragaz batera kontzertu zerrenda bat lotu eta disko berria Euskal Herriko txoko-bazter askotan zabaltzen dugun.

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez anbotokide!

anboto kide

Okm:
batzen gaituen distantzia

anboto kide

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
• %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA
• %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA
• %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA
• %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
• %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
• Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA
• Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA
• %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA
• % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
• %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA
• %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA
• %5eko deskontua liburuetan
• % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA
• %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
• %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAHIA HORTZ KLINIKA
• %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

"Frankismoaren amaieran ikastolen aldeko mugimendu bat sortu izan ez balitz, agian orain beste egoera batean egongo ginen"

Markel Onaindiak Iurretako Goiuria ikastolari buruzko 'Ilunetik argira' dokumentala estreinatuko du Irudienean

IRUDIENEA • JONE GUENETXEA

'Ilunetik argira' dokumentala estreinatuko dute Irudienean, abenduaren 11n. Goiuria ikastolaren sorreran eta hasierako urteetan oinarrituriko ikus-entzunezkoa da.

Markel Onaindia Txabarri
Kazetaria
IURRETA | **1983**

Zelakoa izan da dokumentala egiteko prozesua?

Goiuria Ikastolaren ikerketa egiten hasi ginen orain urte bi. Ikastolaren inguruko historia jasotzea zen helburu nagusia. Nahiko argi genuen liburua kaleratuko genuela. Baina elkarrizketa guztiak grabatzea erabaki genuen, etorkizunean sortu zitezkeen ideietarako. Ikusten nuen liburuaren aurkezpenerako bideo laburren bat egin zitekeela, aurkezpen ekitaldiko lagungarri modura. Prozesu horretan genbiltzala, iaz gidoigintzari buruzko ikastaro bat egin nuen Madrilen. Ikusi nuen esperimentu ona izan zitekeela praktikak egiteko. Konturatzen hasi nintzen gai informatiboaz gainera beste historia bat egon zitekeela,

> ***Informazioa batzerakoan, 60 bat lagun elkarrizketatu ditugu. Dokumentalean erdiak inguru agertzen dira***

barne historia bat. Pertsonaiak ere egon zitezkeela konturatu nintzen, eta Kristina Mardaras eta Justo Alberdi antzezten ipini nituen. Ikastolaren historiaz aparte beste gai batzuk ere lantzen dira: nostalgia, maitasuna...

Liburua kaleratu zenuten, baina ikus-entzunezkoa beste mundu bat da. Libururako elkarrizketak grabatzea gauza bat da eta dokumental bat sortzea beste bat.

Dokumentala ikastolaren sorrerako urteetan zentratzen da batez ere. Hor egon zen arazorik gehien. Inspektore frankistak birritan zarratu zuen ikastola. Horren harira, gurasoek eta ikastolaren bultzatzaileak hainbat lan egin behar izan zuten. Umeak etxeetan egokituriko ikastola klandestinoetan egon ziren eskolak hartzen. Horixe da dokumentaleko istorio zentrala.

Kristina Mardaras eta Justo Alberdi klabeak izan dira lan honetan.

Hasieratik gogotsu egon dira ikastolaren inguruko historia biltzeko. Horretarako pasio eta interes berezi bat izan dute. Horregaitik, dokumentalean euren sentimenduak eta atzera begirako historia kontatzen dira.

Alberdik eta Mardarasek hasieratik argi izan dute ikastolaren historiaren inguruko transmisioa garrantzitsua dela.

Dokumentalaren helburua transmisioa da. Gaur egun ematen du gauzak berez sortu direla, euskaraz ikastea gobernutik irtendako zeozer dela. Baina, frankismoaren amaieran ikastolen aldeko mugimendu bat sortu izan ez balitz, agian orain beste egoera batean egongo ginen. Hortxe ipini ziren oinarriak euskarazko hezkuntza sortzeko.

Informazio bilketa handia egin duzue bai liburuaren eta baita dokumentalaren oinarriak finkatzeko.

Informazioa batzerakoan, 60 bat lagun elkarrizketatu ditugu. Dokumentalean erdiak inguru agertzen dira. Eurekin egon garenetan, argazkiak eta dokumentuak eskatzen ahalegindu gara beti, eta sorpresa batzuk hartu ditugu. Esate baterako, ikastolako lehenengo andereñoa izan zenak, Ana Berriozabalgoitiak, ikastola lehenengoz zarratu zurteneko agindua ekarri zigun, papera bera.

Ikastolaren artxiboa desagertu egin zen.

Ikastola 1981ean zarratu zen, baina kooperatiba ez zen desegin. Eraikina herriko ekintzetarako erabili zen. Artxiboa han egon zen. Baina sute bat eta uriolak egon ziren, eta horien ondorioz artxiborik gehiena galdu egin zen. Horregaitik, ez genekien zehatz-mehatz zein guraso eta zein ikasle egon ziren bertan. Esango nuke ikerketa honegaz historia hori berregin dugula.

Goiuria ikastola mugimendu handiago baten parte izan zen.

Ikastolen sorrerako mugimendua Gipuzkoatik etorri zen batez ere. Euskaltzaleak mugitzen hasi ziren, eliza inguruko sektore euskaltzaleak. Pakita Arregi andereñoa eta beste batzuk. Durangaldean Kurutziaga ikastola izan zen sortu zen lehenengoa, 1967an. 1968an Iurretan, Matienan eta Zaldibarren sortu ziren. Hartu-emana zegoen euren artean, eta Gerediaga elkartean saretzen ziren, Kirikiño izeneko batzordean. Lagin honek erakusten du inguruko euskaltzale eta guraso askok zer egin zuten eta zelako zailtasunak izan zituzten. Izan ere, ikastolak leku askotan zarratu zituzten.

Noiz egongo zarete Irudienean?

Abenduan 11n proiektatuko dugu dokumentala, 17:30ean. Ez da aurretik sarrerarik hartu behar. Iurretan abenduaren 20an eta 22an emango dugu, 19:00etan. Iurretako saioetarako izena eman behar da.